

# GURE IDOLOAK

## AURKIBIDEA

### 1. SARRERA

1. Irakaslearentzako oharrak
2. Ikastunitatearen ibilbidea
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak

### 2. ATAZAK

- A. ataza: Balentria handia da hori, gero!  
B. ataza: Mafalda eta bere lagunak  
C. ataza: Final Fantasy

### 3. MATERIAL OSAGARRIA

- A. Aurrena Hilario!  
B. Biografiak

### 4. ERANSKINAK

- Artola. 'Gure Barrioa'. X. Mendiguren.  
- Hilario. 'Obabakoak'. B. Atxaga.  
- Nire aitona. 'Txantxangorri kantaria'. Ataño.  
- Gizonari egiozue ondo. 'Pello Errota'. A. Zavala.
- Bihurrikeriak. HABE-Euskadi Irratia
- Gaurko mitoak. Euskadi Irratia. DB 1526
- Ziber-izarren inbasioa. Euskaldunon Egunkaria.
- Bideo-jokoak. ETB. DB 364
- Bideo-jokoak. ETB. DB 364
- Gurasoak ere bideo-jokoetara hurbildu behar dira. Consumer aldizkaria.
- Aurrena Hilario! (1. zatia). Obabakoak.
- Aurrena Hilario! (2. zatia). Obabakoak.

BIDEO-PASARTEAK			
<u>A ataza</u>	<u>B ataza</u>	<u>C ataza</u>	<u>Material osagarria</u>
1.- 01.00.42	2.- 01.07.53 3.- 01.10.30	4.- 01.15.27 5.- 01.18.02	6.- 01.26.41 7.- 01.29.28

OHARRA: denbora horiek erreferentziakoak dira.

# 1. SARRERA

## 1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Eskuetan duzun ikastunitatean heroiak, idoloak eta mitoak izango ditugu hizpide: txikitari hurbil genituen heroi ezezagun horiek, inork egindako balentria txikiak, hedabideetako eta komikietako idoloak (gureak eta gure seme-alabenak), mitoen ezaugarriak, gaur egun puri-purian dauden heroi birtualak (Lara Croft, adibidez), horiek bultzatzen dituzten balioak, bideo-jokoen erabilerak gurasooi sortzen dizkigun kezka eta zalantza... Hainbat eta hainbat bideo, irratsaio eta artikulu tartekatuta ditugu eredu-gisa, eta horiek guztiak baliatu ditugu gogoetarako abiapuntu eta akuilutarako.

### A ataza

**Balentria handia da hori, gero!** atazan, bi zeregin nagusi izango dituzte ikasle bakoitzak: batetik, txikitari hurbileko heroi ezezagun haiekin jardun beharko du ahoz eta, bestetik, txikitari egindako balentria gogoangarriren bati buruz.

Atazaren abiaburuan mitoen, idoloen eta heroiaren definizioak uztartu dituzte ikasleek. Ondoren, lau idazleren testuak izango dituzte ikasleek irakurgai. Bertan, txikitari heroi ezezagun banaren berri ematen da. Ikasleek testuak gaineratik irakurri, eta zeinekiko miarrespena adierazten den esan beharko dute. Hori egindakoan, A eta B ikasleek lau horietatik bina testu irakurriko dute modu xeheagoan oraingoan; izan ere, taulan miarrespena adierazteko balia bideak jaso eta gero, elkarri adierazi beharko dizkiote ezaugarriak. Nork bere txikitari heroiaren berri eman aurretik, ikasle bakoitzak prestatu egin beharko du azalpen hori, eta, horretarako, lehenik jasotako adierazpideak aztertu eta baliatu ditu.

Atazaren amaieran bigarren zereginari helduko diote ikasleek: ospetsu batzuek txikitari egindako balentria batzuen sintesiak irakurri, eta zein zeinena den asmatu beharko dute aurrena. Gero, bideoa ikusita, emaitzak alderatu dituzte. Azkenik, nork bere txikitari balentriaren berri eman beharko du, ahalik eta modu bizi eta adierazgarrienean. Hori hala izan dadin, prestatu-fasean hainbat balia bide eskainiko diezu ikasleei, lagungarri.

### B ataza

**Mafalda eta bere lagunak** izeneko atazan, hurbileko heroietatik hedabideetako idoloetara egingo dugu jauzi. Lehenabizi, ikasleek txikitari idoloak izango ditugu hizpide: nolakoak ziren, izaera eta ezaugarriak... Ondoren, ikasleek seme-alaben komikietako eta bideo-jokuetako idoloen berri izate aldera, nork bere seme-alaben heroiaren biografia txikia idatzi beharko du.

Hasteko, ikasle bakoitzak bere txikitari idolorik maiteena gogora ekarriko du, eta, horren berri emateko, idatzi hainbat arrasto prestatu eta azalduko ditu, ea besteek asmatzen duten (bidenabar, adjektiboak lantzeko aukera izango dute; izan ere, taulan dituztenetatik aukera egin eta idolo horri egokituko dizkiote batzuk). Hori egindakoan, irratsaio bat baliatu dugu orokorrean mitoen ezaugarriak zein izaten diren jaso eta horiei buruz ikasleek gogoeta xumea egin dezaten.

Azkenik, hirugarren zeregin nagusiari helduko diogu. Lehenabizi, ikasleek *Mafalda eta bere lagunak* izeneko artikulua irakurri, eta diagrama bat osatu dute (bide batez, adjektibatuzko hainbat balia bideri erreparatu diegu). Ondoren, galdetegi bat prestatu dute ikasleek, gero etxean seme-alabei idoloaren inguruko ahalik eta informaziorik handiena atera ahal izateko. Biharamunean nork bere biografia txikia idatziko du eskolan bertan. Idazmenaren prozesuari begirako bi teknika baliatu ahal izango dituzte ikasleek, diagramarena bata eta galdetegiarena bestea. Bestalde, ikasleek autonomia garatze aldera, feedbackaren teknika sustatu dugu, ikasleek modu kritikoa balora ditzaten ikaskideek egindako idazlantxoak.

### C ataza

**Final Fantasy** izeneko atazan, heroi birtualek bultzatzen dituzten balioez eta bideo-jokoen arriskuez mintzatuko gara. Ikasleek, guraso diren aldetik, izango dute kezka bat bideo-jokoen erabilera dela eta. Jakin-min hori asebetu ahal izango dute, adituek idatzitako artikulu bat irakurrita.

Atazaren abiaburuan, ikasleek puri-purian dugun Lara Croft-i buruzko berri labur bat irakurriko dute. Hainbat heroi birtualen berri dakarren artikulu luzexeagoa ere irakurri beharko dute. Hori egindakoan, idolo hauek bultzatzen dituzten balioen gaineko iritzia emango dute ikasleek idatziz. Jarraian, bideo-pasarte labur bat ikusteko/entzuteko aukera izango dute atazaren akuilu. Bertan, duela urtebete-edo Alacant-en gertaturiko sarraskiaren berri ematen da. Bideo-jokoen erabilera dela eta, zenbait galderari erantzungo diote, ideia-jasa gisa, eta labur-labur. Erantzunok eta lehendik jasotako oharrak baliatuko dituzte, launakako taldeetan egingo duten eztabaidari heltzeko. Feedbackerako, berriz, Sorginen Laratzen bi adituk gai honen inguruan egindako mahaingurua erabiliko dugu (bide batez, baten diskurtsoa aztertu, eta erlatiboaren erabilera okerrari erreparatuko diote ikasleek).

Bukatzeko, bideo-jokoen arriskuak direla eta, euren jakin-mina aseko dute, aditu batzuen iritziak jasotzen dituen artikulu luzea irakurrita. Eta, azkenik, ikasleek gurasoentzako aholkuak prestatuko dituzte.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

### 1. SARRERA

- Ikastunitatearen, helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena



### A. ATAZA: BALENTRIA HANDIA DA HORI, GERO!

- Heroien, idoloen eta mitoen definizioak uztartu.
- Lau idazleren testuak irakurri, eta mirespina adierazteko baliabideak jaso.
- Nork bere txikitako hurbileko heroien berri eman.
- Balentrien inguruan egindako inferentziak alderatu, bideoa ikusita.
- Nork bere txikitako balentrien berri eman.
- Gaiarekin loturiko oinarritzko hiztegi-zerrenda egin, eta erabili.

MIN/IRAK/ENTZ/IDAZ



### B. ATAZA: MAFALDA ETA BERE LAGUNAK

- Nork bere txikitako idolo maiteenaren arrastoak emanda, besteek asmatu.
- Adjektiboak eta adjektibatzeko baliabideak aztertu.
- Irratsaioa entzun eta mitoen ezaugarriak jaso.
- Aukeratutako idoloaren izaeraren eta ezaugarrien berri eman.
- Artikulua irakurri, eta diagrama osatu.
- Nork bere seme-alaben idoloaren biografia txikia idatzi.

MIN/IRAK/ENTZ/IDAZ



### C. ATAZA: FINAL FANTASY

- Artikulua irakurri, eta iritzia elkarri adierazi.
- Artikulua irakurri, eta balioen inguruko iruzkinak idatzi.
- Heroi birtualen eta bideo-jokoen gainean eztabaidatu.
- Bideo-eztabaida ikusi, eta iritzirik adierazgarrienak jaso.
- Galdetegia prestatu.
- Bideo-jokoei buruzko artikulua irakurri, eta jakin-mina asetu.
- Gurasoentzako aholkuak prestatu.

MINTZ/IRAK/ENTZ/IDAZ



**MATERIAL OSAGARRIA**

**A. AURRENA HILARIO!**

- Literatur pasarte baten hasiera irakurri, eta aurreikuspena egin.
- Egindako aurreikuspena alderatu, narrazioaren 2. zatia irakurrita.
- Elkarri kontatu txikitako heroiren bat desegin zitzaionekoa.

**MINTZ/IRAK/ENTZ**



**MATERIAL OSAGARRIA**

**B. BIOGRAFIAK**

- Zertzelada biografikoak hurrenez hurren eman.
- Egindako hurrenkera alderatu, bideoa ikusita.
- Zertzeladak ikasleen hitzetan birformulatu

**MINTZ/IRAK/ENTZ**

### 3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

#### HELURU OROKORRA

- Ikasleek idolo, mito eta heroien gainean gogoeta egitea, eta hedabideen eraginari buruz eta bideo-jokoei buruz eztabaidatzea.

#### AZPIGAIK

- Txikitako hurbileko heroi ezezagunak eta balentria txikiak.
- Hedabideetako heroiak, idoloak eta mitoak.
- Heroi birtualak eta bideo-jokoak.

#### HIZTEGIA

- Idoloak definitzeko adjektiboak. (B1, B3)

#### ELKARRERAGINA

- Mirespena adierazteko moduen berri elkarri ematea. (A1)
- Txikitako hurbileko heroien berri elkarri ematea. (A1)
- Ikasleek eta sortutako testuak aztertu eta baloratzea (ahozkoak zein idatziak). (A1, B3, C2)
- Idoloak sailkatzea elkarren artean. (B1)
- Idoloen ezaugarrien berri elkarri ematea. (B2)
- Nork bere iritzia azaldu, eta ikasleekin eztabaidatzea. (C2)

#### KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Literatur pasarte batzuk gaineratik irakurrita, bertan zeinekiko mirespena adierazten den antzematea. (A1)
- Ereduzko testu bat aztertu eta antzeko bat sortzea. (A1, B3)
- Balentrien sintesiak irakurrita, inferentziak egitea, munduaren ezagutzan oinarrituta, eta, gero, aurreikuspena alderatzea.
- Ahozko kontaketaaren plangintza egitea. (A1, A2)
- *Egunkari*ko artikulua bat irakurri, eta iruzkinak egitea. (C1)
- Iritzia emateko euskarri idatziez baliatzea. (C2)
- Idazlana egiteko plangintza egin, eta ohar laburrez eta diagramaz baliatzea. (B3)
- Irratiko saio bateko mahaingurua entzun eta ideia nagusiak jasotzea. (B2)
- EITBko saio bateko mahaingurua entzun, eta informazio xehea jasotzea. (C2)
- Artikulu luze bat gaineratik irakurtzea. (C3)

#### GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- Mirespena adierazteko baliabideak aztertzea (harridurazkoak). (A1)
- Idoloak definitzeko adjektiboak aztertzea eta praktikatzea. (B1)
- Izaera definitzeko adjektiboak eta adjektibatzeko baliabideak aztertzea eta praktikatzea. (B3)
- Bestek emandako iritziaren egokitasuna aztertzea. (C2)
- Erlatiboaren erabilera okerra aztertzea, transkripzioak irakurrita. (C2)

## 2. ATAZAK

### A ATAZA: BALENTRIA HANDIA DA HORI, GERO!

(195')

#### Helburu nagusia:

- Nork bere txikitako hurbileko heroi ezezagun baten berri elkarri ematea eta ikaskideek egindako azalpenak baloratzea, irizpide batzuen arabera.

#### Helburuak:

- Heroien, idoloen eta mitoen definizioak uztartzea.
- Literatur pasarteak gainetik irakurri, eta zeinekiko mirespina adierazten den antzematea.
- Literatur pasarteak irakurri, eta mirespina adierazteko baliabideak aztertzea.
- Nork bere txikitako hurbileko heroiaren berri ematea.
- Egindako kontaketa/azalpena baloratzea, erabilitako baliabideen ikuspegitik.
- Balentrien sintesiak irakurri eta ondorioak ateratzea.
- Aurreikuspena egin eta, bideoa ikusita, alderatzea.
- Nork bere txikitako balentriak kontatzea.
- Egindako kontaketa biziaren bizitasuna baloratzea.
- Gaiarekin lotutako oinarritzko hiztegia egin eta erabiltzea.

#### Zertan den:

- Ikastunitatearen lehen atazak hiru atal nagusi biltzen ditu:

**Lehenengoan**, ikasleek txikitako beren hurbileko heroi ezezagun baten berri eman beharko diote elkarri. Ez dira, ordea, hutsetik abiatuko. Hainbat literatur pasarte izango dituzte eredu eta aztergai, inorekiko mirespina ederki asko nola eman daitekeen ikusteko. Feedbackaren ardura euren esku utziko dugu.

**Bigarrean**, txikitako egindako balentriak (bihurrikeriak baino egokiago) izango ditugu hizpide. Ospetsu batzuek egindakoak ikusteko/entzuteko aukera izango dugu. Hortik abiatuta, ikasleek taldearen aurrean euren txikitako balentriaren bat azalduko dute ahalik eta txukunen. Ikasleak bideoan/irratian grabatzea proposatzen dizugu.

Azkenik, grabazioak aztertu, eta, egokituz jotzen dituzun bizpahirutan oinarrituta, feedbacka antolatu.

#### Prozedura:

# 1

#### Atazaurrea (70')

- Ikasleek apur batean pentsatuko dute beren liburuan ageri diren argazkietako protagonistak zer diren: heroi, idolo edo mito (Indurain, Maddona, Paul McCartney, Marcos komandantea, inurri atomikoa...). (5')
- Bildu ikasleak hiruak, eta elkarri emango diote egindako aukeraren berri. Kontua ez da elkar konbentzitzea, baizik eta dituzten usteak eta abar elkarri adieraztea. Bide batez, liburuan dituzten hiru hitz horiek eta beren definizioak uztartu behar dituzte (5')
- Eman ikasleei hiztegiko definizioak. (5')

- **Heroia**: Adore handiko ekintza burutzen duena; bereziki zenbait literatur edo filmetako pertsonaia nagusia.
  - **Idoloa**: Kirol- eta musika-arloan bereziki, bereganako mirespen handia sortarazten duen pertsona.
  - **Mittoa**: Pertsonaia, pertsona, gertaera, teknika baten eta abarren inguruan sorturiko uste idealizatua
- Ikasleek liburuan dituzten lau testuak (Artola, Hilario, Nire aitona eta Gizonari egiozue ondo) gainetik irakurriko dituzte eta beren liburuko laukia beteko. Bertan dagokion testuaren zenbakia jarriko dute. Emaiezu eginkizun honetarako denbora neurtua; hartara, testuok gainetik irakurtzera behartuko dituzu.(10')

Neska-mutikoen > ezagunenganako mirespena	1, 2
Ilobak > aitonarenganako mirespena	3
Alabak > aitarenganako mirespena	4

- Ikasleek, testuok berriz irakurrita, euren liburuko fitxan jasoko dituzte, batetik, lau testu horietako protagonistak heroi bihurtzen dituzten ezaugarriak, beren inguruko haurren eta gazteen aurrean miresgarri egiten dituzten bereizgarri horiek eta, bestetik, idazleek mirespen hori adierazteko erabili dituzten esaldiak-eta. A ikasleak 1. eta 4. testua aztertuko ditu eta B ikasleak, berriz, 2.a eta 3.a. Binaka jarrita, egingo dute lan ikasleek. (20')

	Zerk egiten du miresgarri?	Mirespena adierazten duten esaldi eta zatiak
<b>Artola</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezaguna zen</li> <li>- Alderdi ezkutua: lapurra, gaizkilea</li> <li>- Kartzelan sartu eta ihes egiten zuen</li> <li>- Zinemako eta telebistako filmetako protagonista bezalakoa zen</li> <li>- Motoan (lapurtutakoa) etortzen zen</li> <li>- Motoan atzealdean buelta bat eman ahal izan</li> <li>- Pribilegiatu batzuek bakarrik egiten zuten buelta haren motoan</li> <li>- Buelta motzak, baina gure begi-bistatik kanpo</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bolbora-arrastoak suak hartzean bezala zabaldu zen berria</li> <li>- Liluragarria haren metalaren distira ikusi ahal izatea</li> <li>- Mozkorgarria eserlekuaren eskai beltza edo motor oraindik beroa gure eskuz ukitu ahal izatea</li> <li>- Ametsaren pare, zerura igotzea bezalatsu, atze aldean eserita hari gerritik helduta buelta bat eman ahal izatea</li> <li>- Nahikoa zen gure begi-bistatik desagertzea txango hark lurralde ezezagunetako espedizioen traza moduko bat hartzeko</li> <li>- Egundoko abailan ibili gara. Belarrietan ziztu-hots eta guzti aditzen nuen, belozidatea handitu ahala gero eta gogorragoa</li> </ul>
<b>Aita</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Premian zegoen gizon bat ikusi eta etxera ekarri zuen.</li> <li>- Seme-alabei alkandora lehor bat emateko esan zien</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bai. Gure aitak pobreentzako bazuen gogoa</li> <li>- Ijitoek ere maite izaten zuten hura</li> <li>- Bai, hark familia kristiandadean hazi</li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errota txikia izan arren, bertara ekarri zuen</li> <li>- Beti esaten zien gizonari ondo egiteko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>zuen, eta kreditu txarrik ez zuen utzi</li> <li>- Gure aita gizajoak ez zuen pobrea izatea besterik</li> </ul>
<b>Aitona</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordurik gehienetan aitonaekin ibiltzen zen jolasean</li> <li>- Blusa motz hura jantzi eta, bi eskuak ipur gainean jarririk, barrutiko bazter guztiak aztertzen zituen</li> <li>- Gogokoa zuen berak laiatutako lurak ikustea</li> <li>- Igeltsuzko pipa txapelapetik atera</li> <li>- Behatz handiarekin zanpaka-zanpaka betetzen zuen pipa</li> <li>- bigarren edo hirugarren kolperako pizten zuen pipa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- ...eta hartaz nola oroitzen naizen ni oraindik!</li> <li>- Nire begien aurrean ikusiko banu bezalaxe!</li> <li>- Hura huen gizon-puska!</li> <li>- Hortxe-hortxe ni halako bi bai</li> <li>- Handia ez ezik , ona ere bahuen</li> <li>- ...zahartuta ere gizon gozoa huen hura</li> <li>- Nire burua adinako hatzaparrak bazizkian hark</li> <li>- Aita zena ere gizon polita huen; aitonaaren alderatzekorik ere ez ordea</li> </ul>
<b>Hilario</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Obabako semea</li> <li>- Munduko karreristarik hobereena</li> <li>- Karreretako bizikleta zuen</li> <li>- Bere erretratua ostatuan</li> <li>- Kuloteak, kolorinetako elastikoa jantzita ibiltzen zen</li> <li>- Karreteran atzetik etorri eta aurrea hartu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Munduko karreristarik hobereena, Obabako semea bera</li> <li>- Bizikleta urdin-urdina zian, eta karreretakoa, behatz batekin altxatzen den horietakoa</li> <li>- "Han ziek Hilario" esaten genian ikusi orduko</li> <li>- Segituan sortzen hituen gure ezpainetan berarekiko laudorioak:orain ere nola pasa gaitun, e? Hori duk astindua eman diona haizeari!</li> <li>- Edo bestela: hori duk ematea hori! Munduan ez zioz Hilario hautsi dezakeenik!</li> <li>- Baina, Hilarioaren aldean gu ez ginduan ezer</li> <li>- Bera kategoria guztiak baino gorago zitxoan</li> <li>- Hilarioerekiko lilura batean bizi ginduan</li> </ul>

- A eta B ikasleak bildu eta elkarri emango diote jasotako ezaugarrien berri. Nork bere liburuan edo koadernoan hartuko ditu ezaugarriok. Ibil zaitez batetik bestera eta argitu ikasleen zalantzak. (15')
- Denon artean ikusi ezaugarriok eta baliabideok ondo jaso ote dituzten. (10')

**Ataza: nork bere txikitako edo beren seme-alaben hurbileko heroien berri eman (35')**

- Azaldu ikasleei zer egin behar duten. (3')
- Eman denbora apur bat hurbileko heroi horiek gogora ekarri, eta bat aukeratzeko. (Inork beren seme-alaben hurbileko heroiren baten berri zehatza izanez gero, polita litzateke horren berri ematea). (2')

- **Prestaketa:** Ikasleek liburuko fitxan jasoko dituzte, batetik, beren heroi horren ezaugarriak eta, bestetik, mirespena adierazteko erabiliko dituzten esaldiak edo zatiak. Agian, atazaurrean jasotakoak ondo etorriko zaizkie. Esaiezu berauetara jotzeko(15')
- Une egokia duzu hau batetik bestera ibili eta ikasleei baliabide egokiak topatzen laguntzeko...
- **Azalpena:** Ikasleek, launaka, nork bere gertuko heroi horren berri emango diote elkarri. (15')

### Feedbacka (5')

- Launaka, egin duten azalpena baloratzea da ikasleen eginkizuna. Horretarako, esaiezu heroirik bitxiena, harrigarriena edo miresgarriena aukeratzeko. Kontua da baloratzea zeinek adierazi duen hobeto mirespen hori.

## 2

### Atazaurrea: aurreikuspena egin (25')

- Ea ikasleek badakiten zein diren Txirri (pailazoa), X. Agirre (aktorea) eta A. Intxaurrea (antzerki-zuzendaria), ea zer dakiten beraiei buruz. Denon artean hitz egin pixka batean. (5')
- Laster bideoan ikusiko dituzten balentrien sintesiak irakurriko dituzte, eta zein den zeinena asmatu behar dute (Txirrirena, X. Agirrerena eta A. Intxaurrearena). Ondorioztatu egin behar dute zein den zeinena, eta arrazoitu. (5')

Donostiako kaian murgilean ibiltzen zen uda partean, turistek-eta botatzen zituzten txanponak bilduz. Bildutakoekin zinera-eta joaten zen.

Behin balentria baino bihurrikeria handia egin zien herriko bi atsori. Beren dendako ateko aldaban pita lotu, eta, goiz osoan ate-joka aritu ondoren, ederki nazkatu zituen bi atsoak

Hiru urte zituela, etxeko txakurra (ekarri berria) besotan hartu, eta eskaileratan gora eraman zuen gurasoen gelara. Han ahizpa txikiaren sehaskan sartu, eta zaintzen aritu zen gurasoen ohetik.

- Denon artean hitz egin labur-labur ikasleek egindako aukerez eta eman dituzten arrazoiez. Bide batez, adierazi ea izaten ote den alderik gizonezkoek eta emakumezkoek egindako balentrien artean. (5')
- 1. bideo-pasartea ikusteko unea da, haurtzaroko bihurrikeriei buruzkoa. Ikasleek egindako aurreikuspena egiaztatuko dute (II. Eranskina: Bihurrikeriak). (7')
- Denon artean, aipatu ustekaberik izan den. Bide batez, argitu ea alderik izaten den gizonezkoen eta emakumezkoen balentrien artean (emakumezkoaren balentria nolakoa den). (3')

### Ataza: nork bere balentria txikiaren berri eman (45')

- Azaldu ikasleei zein den oraingoan beren egitekoa. (3')
- **Prestaketa:** honako hauek idatziko dituzte liburuko fitxan: batetik, gertakari nagusiak ohar-modura eta, bestetik, kontaktari bizitasuna emateko erabiliko dituzten baliabideak. Une egokia duzu hau batetik bestera ibili eta ikasleek behar dituzten baliabideak topatzen laguntzeko.(10')

Gertakari nagusiak	Kontaktari bizitasuna emateko baliabideak

Esaterako, hemen dituzu denborazko antolatzaile batzuk:

Egun batean	berehala	aurreko egunean
Behin batean	bat-batean	garai hartan
Egun hartan	halako batean	biharamunean
... batez	orduan	egun berean
	...-t(z)earekin batera	handik gutxira
	geroztik	orduko
	bezain laster	harrezkero

- **Azalpena:** Ikasleek nork bere balentria txikiaren berri emango du. Zuk bideoan edo kasetean grabatuko dituzu. (30')

#### **Feedbacka (15')**

- Hurrengo egunean egiteko aproposa. Aztertu grabazioak (azalpenaren egokitasuna, bizitasuna...), eta aukera itzazu ikasleei feedbacka emateko egokiak iruditzen zaizkizun bi.

**Helburu nagusia:**

- Idoloen, mitoen eta herioen ezaugarriez modu informalean hitz egin, eta seme-alaben idolo baten biografia txikia idaztea.

**Helburuak:**

- Bideoan azaldutako idoloak sailkatzea.
- Nork bere txikitako idolo maiteenaren zertzelada nagusiak prestatzea.
- Ikaskideen idolo maiteena asmatzea eta nork berearen berri zehatzagoa ematea.
- Idoloak definitzeko adjektiboak aztertu eta beren idoloarentzako egokiak direnak aukeratzea.
- Irratsaioko mahaingurua entzun eta mitoen ezaugarriak jasotzea.
- Norberaren idoloek ezaugarri horiek betetzen dituzten aztertzea.
- Artikulua irakurrita, diagrama osatzea.
- Artikulua irakurri eta adjektibatzeko baliabideak aztertu eta taulan jasotzea.
- Halako informazio jakin bat ateratzeko galdetegi prestatzea.
- Idazlana egiteko diagramaz eta oharrez baliatzea.
- Ikaskideek sortutako idazlanak aztertzea, esanahi eta forma aldetik.

**Zertan den:**

- Ataza honek hiru mugarri ditu bere ibilbidean:

**Lehenengoan**, ikasleen txikitako heroi handi horiek ekarriko ditugu gogora eta izango ditugu hizpide. Bideoan agertuko diren idolo-andana sailkatu ondoren, ikasleek beren heroi maiteenaren zertzelada nagusiak azalduko dituzte banan-banan (begi-bistakoak ez direnak), gainontzeko ikaskideak asmatzen ahalegin daitezen. Jarraian, kontu gehiago azalduko ditu ikasle bakoitzak ikaskideen jakin-mina asetzeko. Azkenik, idolo horiek definitzeko adjektibo egokiak aukeratuko dituzte.

- **Bigarreanean**, herorien, idoloen eta mitoen ezaugarriez mintzatuko gara. Horretarako, *Lauretan Babel* izeneko irratsaioko mahainguru bat entzun, eta, horien ezaugarriak jaso ondoren, ikasle bakoitzak bere idoloak zein diren eta zein ezaugarri betetzen dituen aztertuko du, eta, jarraian, elkarri emango diote horren berri.
- **Hirugarrenean**, ikasleen seme-alaben komikietako edota bideo-jokoetako heroi zahar eta berrietara egingo dugu jauzi. Ikasleen egitekoa zera izango da: berreraiketa-ariketa bat egitea; alegia, seme-alaben heroi horren berri emango duen idazlana egingo dute. Horretarako, *Unescoren Albistariako* artikulua bat (Mafalda eta bere lagunak) izango dute eredu. Artikulua aztertuta, galdetegi bat prestatu eta informazioa atera beharko diete seme-alabei, azkenik, eskolan bertan idazlana egiteko. Esanahiaren eta formaren feedbacka euren esku utziko ditugu.

**Prozedura:****1****Atazaurrea (20')**

- Ikasleek adi-adi ikusiko dute 2. bideo-pasartea. Bertan hainbat eta hainbat mito, heroi eta idoloen irudi-mordoxka azalduko dira: Batman, Gandhi, Marlene Dietrich, Glen Close, John Malkovich, Hitler, Kennedy, Ayatollah Jomeini, Miguel Indurain, Pello Ruiz Cabestany, Pelé, Oteiza, El Padrino, Matrix, Tasio, Kubrick, Arturo erregea, Harrison Ford, Sean Connery, Maureen O'Hara, John Wayne, Marilyn Monroe, Ingrid Bergman, Humphrey Bogard, Mikel Laboa, Michael Jackson, Lady Diana, Olazabal, Fermin Muguruza, Charlott, Felix Iñurrategi, Fidel Castro eta M<sup>a</sup> Luisa Irizar. (2'35'')
- Ikasleek, hironaka, irudietan azaldu diren idoloen eta herorien zerrenda osatuko dute. Ahalik eta gehien gogoratzen saiatu behar dute. (5')

- Denon artean aztertu ea ikusitako denak gogoratzeko gauza izan diren, eta osatu zerrenda. Bide batez, idoloak sailkatuko dituzte liburuan duten taulan(10')

Aktoreak	Kirolariak	Musikariak	...	...

**Ataza: nork bere txikitako heroi maiteenaren arrastoak emanda, ikasleek idolo hori zein den asmatu. (40')**

- Azal iezaiezu ikasleei zein den ataza honetako egitekoa.
- Ikasleek txikitako idolorik maiteena gogora ekarriko dute (edo beren seme-alabena, inork hala nahiago balu). Gero, liburuko galderei, bat-batean erantzun beharko diete, burura etorri bezalaxe. Ohar-modura idatziko dituzte erantzun horiek liburuan edo paper mutur batean. (10')
- Ikasleek nork bere idoloaren arrastoen berri emango dute, banan-banan. Batek aztarnak eman ondoren, besteek zein ote den asmatzen ahalegindu beharko dute. Asmatutakoan, aztarnak eman dituenak azal dezala pixka batean pertsonaia, edota nahi dituzten galderak egingo dituzte ikasleek: zergatik miresten zuen? Zer-nolako balentriak egiten zituen? Zerk egiten zuen aparta, besteak ez bezalakoa? Nolakoa zen? Nola jokutzen zuen besteekiko? Idolo hori zela eta, berari gertatutako pasadizoren bat?... Bide batez, ikasleek lehen erabili duten taulan azaldu berri diren idoloen izenak jaso eta sailkatuko dituzte. (30')

**Feedbacka (5')**

- Denon artean hitz egin labur-labur egin dituzten sailkapenei buruz.

**Gramatika eta diskurtsoa: adjektiboak (20')**

- Ikasleek liburuan dituzten adjektiboak-eta irakurriko dituzte, eta egokiak iruditzen zaizkien bi erantsiko (euskaraz nola esan jakingo ez balute, gaztelera ere egin dezakete), binaka jarrita. Prest egon beharko duzu ikasleei laguntzeko. (10')

✓ ausarta	✓ abila	✓ eskuzabala	✓ zintzoa	✓ bihotz onekoa
✓ adoretua	✓ indartsua	✓ azkarra	✓ adimentsua	✓ umore onekoa
✓ buru hotzekoa	✓ oztopoen aurrean amore ematen ez duena			✓ jatorra
✓ apala	✓ atsegina	✓ adiskideen adiskide		✓ leiala
✓ jakinduria handikoa		✓ eragozpenei izkina egiten dakiena		
✓ lagun hurkoarekiko arretatsua		✓ behar denean isilik egoten badakiena		
✓ jostalaria	✓ sinismenetan tinkoa			

- Ikasleek lehendik egin duten idoloen zerrendara jo eta bertatik bizpahiru idolo aukeratuko dituzte. Ikasleek idolo horiek definitzeko adjektibo egokiak aukeratuko dituzte aztertu berria duten zerrendatik. (5')
- Hirunaka jarrita, egindakoaren berri emango diete elkarri. (5')

## 2

### Atazaurrea (5')

- Irakurri ikaslearen liburuko A. atazako sarreratxoa (8. or.), eta, hizpidea emate aldera, luzaiezazkiezu honako galdera hauek, denon artean hitz egiteko: mitoak... beharrezkoak al ditugu? Zergatik? Egia al da zibilizazio bakoitzak sortu dituela bere mitoak? Ezagutzen al duzue beste zibilizazioetako mitorik? Zein?

### Ataza: Irratsaioa entzun, eta mitoen ezaugarriak jaso (15')

- Azaldu ikasleei laster entzungo duten *Lauretan Babel* irratsaioaren nondik norakoak (3. bideo-pasarte / III. eranskina: Gaurko mitoak). Esatariak eta solaskideek mitoen ezaugarriez jardungo dute, batez ere. (5')
- Ikasleek mitoen ezaugarriak jaso behar dituzte ohar-modura. (10')

<u>Gaurko mitoen ezaugarriak</u>	Nire mitoa	Ikaskidearena	Ikaskidearena
Badirudi patu txar batek gidatzen duela beren bizimodua: gazterik hiltzen dira, heriotza lazgarria izaten dute...			
Bizimodu berezia izaten dute, erakargarria egiten zaiguna.			
Pertsonaia obsesiboak izaten dira, demasak askotan.			
Haien bizia ondo bizi eta korritutakoa izaten da, gorabehera handikoa.			
Ederrak izaten dira.			
Muturrekoak izaten dira, batera eta bestera jotzen dute. Gauza batzuetan izugarritzko gaitasuna izaten dute; besteetan, ordea —harremanetan-eta, kasu—, oso baldarrak izaten dira.			

### Feedbacka (10')

- Ikasleek, hirunaka, hartu dituzten ezaugarriak alderatuko dituzte. (5')
- Ondoren, jasotako ezaugarriak egiaztatu egingo dituzte. Horretarako, liburuan fitxa batean jasota jarri dizkiegu; izan ere, gero fitxa hau baliatu beharko dute beste zenbait eginkizunetarako. (5')

### Atazaostea (20')


- Ikasleek, hirunaka bilduta, guk emandako ezaugarrien zerrenda horretan beste bi idatzi beharko dituzte, beren ustez, aintzat hartzeko modukoak. (5')

- Ikasleek lehendik egin duten idoloen zerrendatik bat aukeratuko dute, ondoen ezagutzen dutena. Ondoren, ikasleek idolo horren izena jarriko dute idoloen ezaugarriak jasotzen duen laukiak horretarako duten zutabeen. Idoloak ezaugarri horiek betetzen dituen aztertu, eta gurutze bat jarriko dute. (5')
- Ikasleek, hironaka, egin duten azterketaren berri emango diote elkarri, eta dagokien zutabeen jarriko dute gurutzea, ikaskidearen idoloak ezaugarriok betetzen baditu. Kontua zera da: ikasleek modu informalean aukeratu duten idoloaren izaeraren eta bizitzaren berri ematea. (10')

### 3

#### Atazaurrea (25')

- Ikasleak, binaka, liburuko diagrama osatzen saiatuko dira. (5')



- Ikasleek liburuan duten 'Mafalda eta bere lagunak' izeneko artikulua irakurri eta osaturiko diagrama egiaztatuko dute. (5')

**MAFALDA ETA BERE LAGUNAK**

1969an Umberto Eco semiologo italiarrak Mafalda honela aurkeztu zuen Europan: "Gure seme-alabak Mafaldak izateko prestatzen ari direnez —guk hala nahi izan dugulako—, pertsonaia erreal batek merezi duen errespetuz hartzea ez da arinkeria". Baina nor da haur hori, enparantza bati izena eman dion, Buenos Aireseko Hiritar Ospetsu izendatu nahi izan duten eta Argentinan XX. mendean gehien eragin duten hamar emakumeen artean aukeratu zuten sei urteko haur hori? Julio Cortazar idazleak honela esan zuen: "benetan garrantzia duena ez da nik Mafaldaz zer pentsatzen dudana, baizik eta Mafaldak nitaz zer pentsatzen duen". Mafalda lotsagabea, Beatles taldearen mireslea, sopa gorrotatzen duena, eta munduko osasunaz eta gerra hotzaz erabat kezkatuta dagoen neskatxa dugu. Mafaldak bere kezkak agertzen dizkie aita-amei, galdera lotsagabeak etengabe egiten dizkie; esaterako: Zuek gure hezkuntza planifikatuta al duzue? Edota inprobisatu baino ez duzue egiten? Anaia Gillenek haurrek izan ohi duten xalotasuna adierazten du. Taldea honakoek osatzen dute: Manolito, auzoko dendariaren semea, supermerkatu kate baten jabe izatearekin amesten du; materialista hutsa da. Felipe, lotsatia eta erromantikoa da, eskolara ez joateko aitzakia bila ibili ohi da beti. Miguelito nartzisista. Susanita, handia hazitakoan, seme-alaba ugari dituen ama burgesa izan nahi duena. Eta Libertad, denetan txikiena. "Horrela marraztu nuen askatasuna bera ere txikia delako" dio Quinok.

- Ikasleek, binaka jarrita, artikulua aztertu eta liburuko taulan zera jasoko dute: batetik, adjektiboak eta adjektibatzeko balio duten esaldiak, eta, bestetik, pertsonaiak nolakoak diren jakiteko hainbat ekintza. (10')
- Denon artean alderatu ikasleek jaso dituztenak. (5')

	Adjektiboak eta adjektibatzeneko esaldiak	Pertsonaiak nolakoak diren jakiteko ekintzak
<b>MAFALDA</b>	Lotsagabea, Beatles taldearen mireslea, zopa gorrotatzen duena, munduko osasunaz eta gerra hotzaz erabat kezkatuta dagoen neskatxa	Bere kezkak agertzen dizkie aita-amei, galdera lotsagabeak etengabe egiten dizkie
<b>AITA</b>		
<b>AMA</b>		
<b>GUILLE</b>	Haurrek izan ohi duten xalotasuna adierazten du	
<b>MANOLITO</b>	Auzoko dendariaren semea, materialista hutsa da	Supermerkatu-kate baten jabe izatearekin amesten du
<b>SUSANITA</b>	Handia hazitakoan, seme-alaba ugari dituen ama burgesa izan nahi duena	
<b>FELIPE</b>	Lotsatia, erromantikoa	Eskolara ez joateko aitzakia bila ibili ohi da beti
<b>MIGUELITO</b>	Narzisista	
<b>LIBERTAD</b>	Denetan txikiena	

#### Ataza: seme-alaben idoloren baten biografia txikia idatzi. (55')

- **Oharra:** ikasleek hurrengo egunean beren seme-alaben idolo baten biografiaren berri eman beharko dute. Horretarako, beren seme-alabei galdetu beharko diete. Azken batean, zertzelada biografikoak idatzita ekarri behar dituzte. Polita litzateke idolo horren argazki bat ere ekartzea, beren seme-alabei eskatuta.
- **Prestaketa:** ikasleek beren seme-alabei luzatuko dizkieten galderak prestatuko dituzte. Horretarako, liburuan dituztenak irakurri, osatu eta egokitu egingo dituzte, hironaka jarrita. Guk lau eman dizkiegu, eta beraiek sei galdera gehiago erantsiko dituzte. Ahal bada, ikasleek gardenki batean idatziko dituzte galderak. (15')

1. Nolakoa da?	6. ... ..
2. Zerk bihurtzen du berezi edo aparta?	7. ... ..
3. Zein ohitura ditu?	8. ... ..
4. Ba al du anai-arrebarik?	9. ... ..
5. ... ..	10. ... ..

- Talde bakoitzeko eledun batek prestatutako galderak irakurri egingo ditu (ahal bada, proiektatzen diren bitartean). Besteek beraientzat galdera egokirik ikusiz gero, jaso egingo dute. (10')
- Ikusi ikasleek arazorik ba ote duten galderak idazterakoan (mugagabea, partitiboa, esaldiaren ordena, al...). Adi ibili, eta lagun iezaiezu ikasleei. (10')
- **Oharra: etxean egitekoa.** Ikasleek, etxean seme-alabei galdetu eta informazioa jaso ondoren, bi zeregin izango dituzte: batetik, diagrama moduko bat osatuko dute (ikaslearen liburuko 24. orrialdekoa), eta, bestetik, taula batean pertsonaien ezaugarriak jasoko dituzte, alegia, adjektiboak eta ekintzak (ikaslearen liburuko 25. orrialdekoa).
- **Azalpena:** biharamunean, nor bere idazlantxo egingo du eskolan bertan, idazlan laburra, hamar bat lerrokoa (nahi badute, hortxe dute irakurri berri duten Mafaldarena eredu). Une egokia duzu hau batetik bestera ibili eta ikasleen beharrak aztertu eta laguntzeko. (30')



**Feedbacka (30')**

- Ikasleak launaka bilduta, ikaskideen idazlanak irakurri eta bakoitzeko bi galdera prestatuko dituzte, testuan ageri den heroiaren kontuei buruzkoak, beren jakin-mina asetzeko. Galderak elkarri egingo dizkiote eta horretaz jardungo dute. (15')
- Oraingoan, formari begirako feedbacka egingo dute. Ikasleek, berriz ere, testuak irakurri eta adjektiboetara eta adjektibatzeneko baliabideei egingo diete kasu. Itxurazkoak iruditzen ez zaizkienak azpimarratuko dituzte. Lauon artean hitz egingo dute horretaz. Adi ibili, eta, zalantzarik balute, argitu. (15')

**Helburu nagusia:**

- Heroi birtualek bultzatzen dituzten baloreez eta bideo-jokoek dakartzaten arriskuez eztabaidatzea.

**Helburuak:**

- *Egunkariako* artikulua irakurri eta iritzia ematea.
- *Egunkariako* beste artikulua bat irakurri modu estentsiboan.
- Heroi birtualek bultzatzen dituzten baloreez gogoeta egitea, iritzia ohar modura idatziz emanda.
- Heroi birtualek bultzatzen dituzten baloreez eta bideo-jokoek dakartzaten arriskuez eztabaidatzea, nor bere oharrak baliatuta.
- *Sorginen Laratzako* mahainguruko solaskideek emandako iritzien egokitasuna eta zuzentasuna baloratzea.
- *Consumer aldizkariko* artikulua luzea gainetik irakurri eta ikasleen jakin-mina asetzea.
- Bideo-jokoaren erabilera dela eta, gurasoentzako aholkuak ematea.

**Zertan den:**

- Ataza honen **bigarren azpiatazan** ikasleek eztabaida bat burutu beharko dute. Hauxe da, ataza honetako mugarr nagusia. Hala ere, **hirugarren azpiatazan** aukera izango dute, bideo-jokoaren erabilera dela eta, beren jakin-mina asetzeko, adituen iritzia biltzen dituen artikulua luze eta mardula irakurrita.

**Prozedura:****1****Atazaurrea: berri laburra irakurri eta burutazioak adierazi (15-20')**

- Esaiezu ikasleei *Egunkariako* berri labur hori irakurtzeko. (2')

**Lara Croft heroiak 34 urte beteko ditu gaur**

Lara Croft heroi birtualak 34 urte beteko ditu gaur, San Valentín egunean. Bideo-jokoetako heroi famatuena da Croft, arkeologoa bera, eta pertsonaia horren abenturak biltzen dituen bideo-jokoaren milioika kopia saldu dira dagoeneko. Lehenengo aldia da heroiaren adina jakinarazten dutena. Eta adinaz gain, Croften neurriak ere ezagunak dira atzodanik: 1,73 metroko altuera dauka, 59 kiloko pisua, 61 zentimetroko gerri-buelta, eta 98 zentimetro zabal da haren aldaka; bularrari dagokionez, "neurri italiarreko bularretako handiena" erabiltzen omen du. Lara Croften abenturak zineman ere ikusi ahal izango ditugu aurki, Angeline Jolie aktorearen eskutik.

- Hirunaka, ikasleek artikulua irakurritakoan izandako burutazioak adieraziko dituzte labor-labor. (5')
- Denon artean, adierazi bestelako heroi birtualen bat ezagutzen duten, beren seme-alabena-edo, eta baita heroi birtual horien inguruan dakiten guztia ere.(10')

**Ataza: artikulua irakurri, eta lehendik aipaturiko heroi birtualik ageri den egiaztatu (10')**

- Ikasleek 'Ziber-izarren inbasioa' artikulua irakurritako dute (IV. eranskina), eta lehendik aipatu dituzten heroi birtualak bertan ageri diren egiaztatuko.

### Feedbacka (5´)

- Denon artean hitz egin pixka batean ikasleek egindakoaz.

### Atazaostea (10´)

- Ikasleek liburuan ageri diren balioak gogoan, artikuluko heroi birtualek zein eta zein bultzatuko dituzten pentsatuko dute. Bizpahiru balio aukeratu, eta horien gaineko iritziak edota iruzkinak idatziko dituzte (nork bereak, liburuko taulan ohar-modura eta garatu gabe). Hausnarketa horiek idatzi eta jaso egingo ditu ikasle bakoitzak, izan ere, geroko eztabaidan baliatu beharko ditu eta.

<b>sexismoa</b>	
<b>lehia</b>	
<b>tolerantzia</b>	
<b>elkartasuna</b>	
<b>arrazakeria</b>	
<b>berdintasuna</b>	
<b>indarkeria</b>	

## 2

### Atazaurrea (10´)

- Hasierako lerrokada irakurri ikasleekin batera, eta galdetu ea gogoratzen duten Alacant-en gertaturikoa. (3´)
- Bideo-jokoaren aurkezpena jarri (4. bideo-pasarte / V. eranskina), eta ikusi Alacant-en gertaturikoaren berri ematen denekoa. (3´)

### Ataza: heroi birtualen eta bideo-jokoaren inguruan eztabaidatu (35´)

- **Prestaketa.** Ikasleek liburuan dituzten galderak irakurri eta bakoitzaren azpian pare bat hitz idatziko dituzte. (15´)
  - Zergatik da hori? Zer da: sentsazionalismoa edo zerbait gehiago ere bada?
  - Benetan lotu daitezke horrelako gertaerak bideo-jokoekin? Edo gerta al daitezke horrelakoak?
  - Bideo-jokoek errealitatea eta fikzioa nahastera bultzatzen al gaituzte?
  - Hain erakargarriak al dira bideo-jokoak gazteentzat? Edo gazte-mota batzuentzat bakarrik?
  - Eta erakargarriak al dira helduentzat?
  - Alde onik ba al dute bideo-jokoek? Zein?
  - Zein balio bultzatzen dituzte protagonistek? Zer eragin izan dezake horrek zuen seme-alabengan?
- **Azalpena.** Ikasleek gaiaren inguruan hitz egingo dute, beren iritzia emanez. Horretarako, liburuan dituzten galderak baliatuko dituzte, baita aurreko azpiatazaren amaierako taulan jasotako oharrak ere. (20´)

### Feedbacka (20')

- Jarri bideo-jokoen tertulia (5. bideo-pasartea /VI. eranskina), eta tertulia ikusi/entzun bitartean, iritzi aipagarriak jasoko dituzte ikasleek, atentzioa eman dietenak. (8'34'')
- Denon artean azaldu jaso dituztenak. (10')

### Gramatika eta diskurtsoa (30')

- Ikasleek, transkripzioa irakurri ondoren (ikasleen liburuko 31. orrialdekoa), bertan dituzten hiru iritzi horiek aztertuko dituzte.

Felix Etxeberria	Lourdes Otermin
<p>— Nik ez dakit oso-oso seguru egongo nintzatekeen hori horrekin lotzeko, gauza batengatik: milaka eta milaka daude horrelako jokuak, holako bideo-jokoak. Final Fantasy hori asko saltzen da. Jostailu faborituena da, eta ez da egunero horrelakorik gertatzen. Orduan, nahi eta nahi ez horrekin lotzea larregi, gehiegi iruditzen zait.</p> <p>— Nire ustez, bai. Alde onak badituzte. Eta praktikan, bai psikoterapian, bai entrenamenduan, bai zenbait abilitate lantzerakoan, bai simulazioan, bai klinikan, osasungintzan-eta... Era... maila askotan erabiltzen dira bideoak. Eta gero bideoen artean, bideojokoen artean, badaude bideo edukatiboak ere bai: inteligentzia lantzen dutenak eta sormena eta abar. Gero, badaude batzuk, bada, negatiboak direnak: biolentzia, sexismoa-eta lantzen dutenak. Eta, zoritxarrez, prentsan eta komunikabideetan agertzen diren bakarrak horiek izaten dira normalean.</p>	<p>— Nik uste dut baietz, e? Ba, bueno, pixka bat kontuan hartu beharko genuke -lehen egon gara hitz egiten Felix eta ni- konponente... nortasunaren konponente batzuk badaudela hor, ez? Baina, nik uste dut... Galdetu beharko genuke zeintzuk engantxatzen diren horrelako jokoekin. Horrelako engantxe... engantxea esaterakoan, esan nahi det... bueno... jende bat badago, gazte jende bat badago, orduak eta orduak pasatzen dituztela jolasten. Eta jolasterakoan zer gertatzen da? Ba, jolasterakoan gertatzen dena da denbora guztian zaudela "estitak" (stickak) jotzen, ez? Orduan ezin duzu pentsatu. Hor ak... akzioa da inportanteena. Eta akzio horren inguruan zabilta, baino, zu... eta imajina zure pentsamendua baino arinago doa, eta ezin duzu pentsatu. Orduan, gelditzen zara horrela... pentsamendu barik...</p>

- Binaka, hurrengo galderei erantzungo diete: zeinek ematen ditu iritziak txukunago, argiago? Zein ulertzen da hobeto? (5')
- Denon artean argitu labur-labur. (3')
- Ikasleek oraingoan azertu beharko dute zerk iluntzen duen mezua. Horretarako, hurrengo arrazoen artean aukera egin, eta adibide bana emango dute, binaka bilduta. (10')
- Gramatika-akatsak.
- Ideiak suelto samar ematea, ongi josi eta lotu gabe.
- Ideiak behar bezala ez garatzea.
- Formulazio okerrak, hau da, adierazi nahi dena adierazi ezin, eta beste zerbait esatea.
- Gaiari ez lotzea; solaskideak esandakoari ez lotzea, gaia aldatuta.
- Lexiko desegokia erabiltzea.
- Bi dira, batez ere, azpimarratu beharreko alderdiak: erlatibozkoaren erabilera okerra (-ela, -ena nahastea, ikasle hauek maiz egiten duten akatsa) eta adiskide gaiztoak izenekoa (erdal hitzak euskaraz beste adiera bat hartzen dutenak: akzioa/ azioa...). Azaldu iezaiezu hau guztia (10')

### 3

#### Atazaurrea (30')

- Ikasleek beren seme-alabek eta beraiek ezagutzen dituzten bideo-jokoen zerrenda egingo dute. Zerrenda egin bitartean, ikasleek beren seme-alaben gustuez, beraien ezagutzaz eta abarrez jardungo dute, labur-labur. (5')

ARCADE (plataformak, labirintoak, abenturak)	EKINTZAKOAK (borroka eta borrokaldiak)	KIROLETAKOAK (futbola, tenisa, saskibaloia, gidatzea...)	ESTRATEGIA (abentura, rola, gerrako jokoak...)	SIMULAZIOA (egoera baten simulatzailerak edo instrumentalak)	MAHAIKO JOKOAK (trebezia, galdera eta erantzunak)

- Ikasleek egin duten zerrenda sailkatu egin behar dute. Sailkatzearekin batera, argituko dute ea bideo-joko horiek gogoko dituzten bere seme-alabentzat, aproposak iruditzen zaizkien, kezkarik baduten... (15')
- Ikasleek zerrenda bat egingo dute bideo-jokoen gaian adituak erantzutea nahiko luketen galderekin. (10')

#### Ataza: artikulua irakurri, eta ikusi zenbateraino erantzun dieten beren galderei (20')

- Ikasleek 'Gurasoak ere bideo-jokoetara hurbildu behar dira' artikulua irakurri (VII. eranskina), eta, hiruak, beren kezka zenbateraino ase dituzten adieraziko dute. Esan dezatela beren galderetatik zeinek jaso duen erantzuna, zeinek ez, zer erantzunek ez dituen ase. Horretarako, liburuko taula baliatuko dute.

Erantzundakoak	Erantzun gabekoak	Ase ez nautenak

#### Feedbacka (5')

- Denon artean labur-labur hitz egin.

#### Atazaostea: bideo-jokoen erabilera dela eta, gurasoentzako aholkuen zerrenda egin. (15')

- Ikasleek, hiruak, gurasoentzako aholkuen zerrenda egingo dute. Bideo-jokoen erabilera dela eta, gurasoentzako aholku egokiak idatziko dituzte.

#### Feedbacka (15')

- Talde bakoitzeko bozemaile batek aholkuen berri emango du.

### 3. MATERIAL OSAGARRIA

#### A. AURRENA HILARIO!

(40')

##### Helburu nagusia:

- Narrazio baten segidaren aurreikuspena egin eta alderatzea.

##### Helburuak:

- Pasarte literario baten hasiera irakurri eta aurreikuspena egitea.
- Egindako aurreikuspena alderatzea, narrazioaren bigarren zatia irakurrita.
- Txikitako heroiren bat desegin zitzaienekoa elkarri kontatzea.

##### Zertan den:

- Ataza honen helburua zera da: *Atxagaren "Obabakoak"* liburuko Hilarioen pasartearen aurreikuspena egin eta alderatu ondoren, ikasleek gogora ekartzea beraiei heroiren bat desegin zitzaieneko pasadizoa, eta horren inguruko solasaldi informala egitea.

##### Prozedura:

## 1

##### Atazaurrea (20')

- Ikasleek liburuko 37. orrialdeko testu-pasartea irakurriko dute (VIII. eranskina). Bertan, Hilario miresteari utzi ziotenekoaren berri ematen da. (5')
- Ikasleek, hirunaka, Hilario gertatutakoaren aurreikuspena egingo dute. Non ote zebilen Hilario? Zer gertatu ote zitzaion? Pasako ote zen? Zenbatgarrena iritsiko ote zen? Zer gertatuko ote zen egun hartan? (10')
- Talde bakoitzeko eledun batek egindako aurreikuspenaren berri emango du denen aurrean. (5')

##### Ataza: pasartearen bigarren zatia irakurri, eta egindako aurreikuspena egiaztatu (5')

- Ikasleek liburuko 38. orrialdeko testu-pasartea irakurriko dute (IX. eranskina), eta egindako aurreikuspena egiaztatuko dute.

##### Feedbacka (5')

- Denon artean zehaztu ea ustekaberik izan duten.

##### Atazaostea (10')

- Ikasleek, hirunaka, adierazi beharko dute antzeko zerbait gertatu al zaien inoiz, baten bat miresteari utzi al dioten noizbait, zergatik gertatu zen hori...

## B. BIOGRAFIAK

(50')

### Helburu nagusia:

- Bideoan ikusi/entzundako biografia baten berri elkarri ematea.

### Helburuak:

- Zertzelada biografikoak hurrenkeran jartzea, munduaren ezagutzan oinarrituta.
- Egindako hurrenkera alderatzea, bideoa ikusita.
- Ikasleek, hitz gakoetan oinarrituta, zertzelada biografikoak beren hitzetan adieraztea.
- Hitz gakoak aurrean dituztela, elkarri biografiaren berri ematea.

### Zertan den:

- Ikasleak bi taldetan banatu (A eta B ikasleak), eta bakoitzak egokitu zaion biografiarekin egin beharko du lan. Lehendabizi, pertsonaia horren zertzelada biografikoak ordenatu beharko dituzte eta, gero, bideoa ikusita, egindako hurrenkera alderatu. Elkarri biografiaren berri eman baino lehen, ordea, prestaketa-fasean hitz gakoek teknika landuko dute, egingo duten azalpenaren lagungarri. Feedbacka antolatzea zure esku utzi dugu oraingoan.

### Prozedura:

## 1

### Atazaurrea (20')

- Ataza honetako egitekoa azaldu. Ikasleek bi taldetan banatuta biografia bana ikusiko dute bideoan. A ikasleak Elvis Presley-ri dagokion bideo-pasarteak ikusiko du eta B ikasleak, berriz, Harry Houdini-ri dagokiona —Harry Houdini joan den mendearen hasierako magorik ospetsuena izen zen, gaur egungo ilusionisten artean mito bihurtuta dagoena—. Biografiak ikusi baino lehen, ordea, zertzelada nagusiak ordenatu beharko dituzte. Bideoa ikusi eta egiaztatu ondoren, elkarri emango diote egokitu zaien pertsonaiaren biografiaren berri. (2')
- Ikasleak bi taldetan banatu: A eta B ikasleak. Binaka, egokitu zaien biografiaren zertzelada nagusiak hurrenkeran jarriko dituzte. (5')
- Bideoa ikusi, eta egindako aurreikuspena alderatu eta zuzendu egin behar dute. (10')

### ERANTZUNA:

#### A IKASLEA (Elvis)

- 1958an EEBBetako armadan sartu zen.	6
- John Lennon-en hitzetan, Elvis Armadara joan zenean hil zen.	9
- Beltz baten moduan abesten zuen zuria izan zen.	3
- 1968an bere gainbehera etorri zen: izaera txarra, gehiegizko pisua, botika-zaletasuna. Medikuek zazpi hilabetetan 5.300 pilula errezetatu zituzten.	8
- Idoloa izan zen zuri zentzatu zein beltzentzat. Hainbat film egin zituen.	5
- 1935ean jaio zen Misissipin.	1
- Graceland-en hil zen 1977an.	10
- Elvis The Pelvis deitzen zioten aldaketa mugimenduarengatik.	4

- 18 urterekin grabatu zuen lehen diskoa bere amarentzat: "That´s all right mama" "Blue moon of Kentucky"	2
- 1967an Priscillarekin ezkondu zen.	7

#### B IKASLEA (Houdini)

- Ospea jokoan jartzen zuen ekitaldi bakoitzean.	9
- Houdini izena garai hartako mago frantziar batetik hartu zuen: Robert Houdini.	4
- 1900eko maiatzean Atlantikoa zeharkatu zuen Europa bere magiarekin menperatzeko asmoz.	8
- Erich Weiss inoiz ezagutu den magorik handiena izatera heldu zen.	1
- Houdinik erronka bat bota zion bere buruari: ihesa, edonondik ihes egitea.	6
- Herriz herri zebilela, bere lehen agerraldia polizi etxeetan egiten zuen.	7
- 1894an Coney Island-en transformazio bat egiten ari zela, Bess Rahmer bere laguntzaile eta emazte izango zena ezagutu zuen.	5
- 17 urte zituelarik profesional egitea erabaki zuen.	3
- Ameriketara itzuli ondoren, eta geroz eta gauza ausartagoak lortuta, 1926ko Santu guztien egunean hil zen.	10
- Erich Weiss inoiz ezagutu den magorik handiena izatera heldu zen: Harri Houdini	2

#### Ataza: bakoitzak bere pertsonaiaren biografiaren berri eman (20-30')

- Esaiezu ikasleei entzun duten biografiaren berri eman beharko diotela laster elkarri, binaka jarrita.
- **Prestaketa:** Ikasleek liburuan dituzten 10 hitz gakoekin egin beharko dute lan oraingoan. Hitz gako bakoitzaren ondoan zertzelada biografiko horren berri idatzi behar dute, beren hitzak erabiliz. (10')

ELVIS	HOUDINI
Misissipi / 18 urte / Beltz / Pelvis / Idoloa / Armada / Priscilla / Gainbehera / J. Lennon / Graceland	Magoa / Rabi / 17 urte / Izena / Bess Rahmer / Ihesa / Polizia / Europa / Ospea / Santu guztien eguna

- **Azalpena:** Ikasleek, binaka, elkarri biografiaren berri emango diote. Horretarako, lehendik landuta dituzten hamar hitz gako horiek besterik ez dituzte baliatuko. (10')
- Une egokia da hau batetik bestera ibili eta honako honi erreparatzeko: zer moduz moldatu dira ikasleak denborazko -(e)la/-(e)larik erabiltzen? Zer moduz moldatu dira denborazko antolatzaileen erabileran? Ondo lotu al dituzte zertzelada biografikoak? Har itzazu behar dituzun oharrak.

#### Feedbacka (10')

- Lehen azalpenaren fasean hartu dituzun oharrei jarraiki, emaezu feedbacka ikasleei. (Hala behar izanez gero, azaldu -(e)la/-(e)larik horren erabilera, denborazko antolatzaile zenbait...)



## 4. ERANSKINAK

### I. ERANSKINA

1. testua:

#### ARTOLA

— Artola etorri da! Artola etorri da!

Bolbora-arrastoa suak hartzean bezala zabaldu zen berria barrioko mutil guztien artean: Artola! Bera zen ezagutzen genuen heroi bakarra: bagenekien nongoa zen, bere etxea, bere gurasoak; kalean ikusi eta normal ibiltzen zen, baina hala ere bazuen alderdi ezkutu bat, berezi egiten zuena: lapurra omen zen, gaizkilea, poliziei aurre egiten zien, kartzelan sartzen zuten, kartzelatik ihes egiten zuen, berriro sartzen zuten eta berriro ihes egiten, telebista eta zinemako film guztiak jo eta pasa egiteko moduko ekintza-kate ikusgarri batean.

Motoan etortzen zen Artola, eta galdetu gabe ere bagenekien moto hura lapurtua zela, eta horrek ere ederragoa egiten zuen ibilgailua, liluragarria haren distira ikusi ahal izatea, mozkorgarria eserlekuaren eskai beltza edo motor oraindik beroa geure eskuz ukitu ahal izatea; eta ametsaren pare, zerura igotzea bezalatsu, atze aldean eserita hari gerritik helduta buelta bat eman ahal izatea. Plazer guztizko hori debekatua zitzaigun ordea gehienoi. Jose Andres eta Oskar ziren pribilegiatu bakarrak, ez berez Artolak maiteago zituelako, bagenekien guk ere hori, denok berdin tratatzen baikintuen hark, baina Puriren anaiak zirelako biak.

...

Buelta haiek motxak izango ziren normalean, barriotik gehiegi urrundu gabe, ingurumariko errepideetan egindako aurrera-atzera batzuk gehienetan, baina nahikoa zen gure begi-bistatik desagertzea txango hark lurralde ezezagunetako espedizioen traza moduko bat hartzeko; zer esanik ez Jose Andresek itzuli ostean kontatzen zituenak adituz gero.

— Egundoko abailan ibili gara. Belarrietan zitzu-hots bat eta guzti aditzen nuen, belozidatea handitu ahala gero eta gogorragoa.

— Zenbatean joan zarete? Zenbatean? –galdetuko genuen guk, irrikatsu.

— Ez dakit. Atzetik ez nuen markagailua ikusten –esango zigun Jose Andresek, eta isiltasun-une ondo kalkulatu baten ondoren erantsi-: baina nik uste orduko ehunean edo.

## 2. testua

### HILARIO

“Urruti samar zegok, bai. Honaino etortzen zineten bizikletaz, orduan!”

“Aise, gainera”

“Ez zineten karrerista txarrak, somete!”

“Hilario baino motelagoak, halere!” otu zitzaidan.

“Hilario?”

“Hilario, bai. Munduko karreristarik hobereena. Obabako semea bera.”

Eta nola lagunak –normala zenez– ez ulertuaren keinuak egiten baitzizkidan, gau hartako hamaikagarren oroitzapenaren kontaketa ekin nion... oroitzapen gehiegi, apika, bidaia bakar baterako; baita lagun bati aitortzeko edo inongo liburutan idazteko ere. Baina nire memoriak, une hartan, zotzez egina zirudien, eta su hartzen zuen paisaiak ematen zion berotasunarekin.

“Bizikleta urdin-urdina zian, eta karreretakoa, behatz batekin altxatzen den horietakoa,” hasi nintzen desenkusatu eta gero- “eta arratsero, jantzi kuloteak, jantzi kolorinetako elastikua, eta entrenatzera ateratzen huen herri inguruetara. *Han ziek Hilario!* Esaten genian ikusi orduko. Eta, karretera honetan bertan, atzetik etorri eta aurrea hartzen bazigun, bada segituan sortzen hituen gure ezpainetan berarekiko laudorioak: *Orain ere nola pasa gaitun, eh? Hori duk astindua eman diona haizeari!* Edo bestela: *Hori duk ematea hori! Munduan ez zioz Hilario hautsi dezakeenik!* Hitz batean esanda, mirestu egiten genian. Guk geuk, aldapa behera makur-makur eginak jaisten ginenak eta, kategoría handia genian, plazari bueltak emanez ibiltzen zirenena baino bost aldiz handiagoa gutxienez; baina Hilarioren aldean gu ez ginduan ezer. Bera kategoría guziak baino gorago zitxoan. Eta norbaitek, gu baino zaharrago batek edo, ez zela *hain ona* esaten zigunean, hitzetik hortzera ematen genitxoan erantzuna: *Ez dela hain ona? Orduan zergatik uzten diote kolorinetako elastikuarekin ibiltzen? Eta berak, hori edonori ematen ziotek delako batekin argudiatzen bazuen, orduan bai egiten genituela guk algarak: Edonori ematen diotela? Joan hadi hi bat eskatzera! Etorriko haiz bueltan!* Zeren txikitan, argudio guztiak *ad hominem* izaten baitira, eta inbidia jotzen da jokaera gehien oinarritzat. Oso arrazoinatzeko modu ona, bide batez esanda. Bestalde, bere erretrato bat ikusten genian ostatura sartzen ginen bakoitzean. Eta zer gehiago behar zen bada? Hilariorekiko lilura batean bizi ginduan.

### 3. testua

#### NIRE AITONA

Nire aitona zena, harixe Jainkoak zerua diola, ezin nezakek isilik utzi. Salbador zian izena. Zazpi urte nitueneko hil huen nire aitona, eta hartaz nola oroitzen naizen ni oraindik! Nire begien aurrean ikusiko banu bezalaxe! Hainbeste maite al nian, izan ere. Nire gurasoak lan egin beharra zeukateken, eta, jakina, seme-alaben eder egiterik ez askotan. Amari lanean ez galeraztearren, beraizik eramaten baininduen aitonak, nire ordurik gehienetan behinik behin aitonarekin nizkian jolasak.

Hura huen gizon-puska! Hortxe-hortxe ni halako bi bai. Handia ez ezik, ona ere bahuen. Bere belauen gainean eserita, makinatxo bat ipuin gozo entzuna negok. Lanerako ez huen gauza, zahartua baitzen ordurako. Hainbeste urtetan berak laiatu eta landu zituen lurak ikustea, oso gogokoa zian berriz.

...

Xarraka-xarraka bere blusa motz hura jantzi eta, bi eskuak ipur gainean jarririk, barrutiko bazter guztiak aztertzen zizkian. Nire gurasoak lanean ari ziren lekura joango huen. Haiekin hitz aspertu bat egin ondoren, aurrera berriz ere. Beheko txoko hartan haritz luze eta mardul bat bahuen; bere hura hartzaren beso luze haiekin neurtu gabeko onik ez zian izaten.

...

Baina, hurrengo arratsaldean ere betiko irteera. Muino baten gainean eseriko huen, eta arnasa lasaitu arte, igeltsuzko pipa txapelapetik atera; toxa ere, gehienean, berak erein eta landatutako tabakoz betea edukitzen baitzuen. Behatz handiarekin zanpaka-zanpaka beteko zian pipa. Toxa gorde eta dunda, bigarren edo hirugarren kolperako piztuko zian. Haize pixka bat eman ondoren, pipa sutu eta lasai, ke-jario, han egongo huen nire jolasei begira.

...

Hura zen gizon-puska, luze eta zabala, gilborrik gabeko serail eta tentea. Oraindik ere, bere ile txuriaren gainetik, txapela, aurrera isurian; igeltsuzko pipa bat ezpainetan; txapinen gainetik, ardi-larruzko abarka handi batzuk; eta blusa motz bat soinean, bere besoak dilindan eraginean zituela, zahartuta ere gizon gozoa huen hura. Nire burua adinako hatzaparrak bazizkian hark. Aita zena ere gizon polita huen; aitonaren alderatzekorik ere ez ordea. Haren bularreraino ez ninduan, berriz, ni.

#### 4. testua

### GIZONARI EGIOZUE ONDO!

Arrats batean euria ikaragarri txarra botatzen ari zen, eta haizea ere izugarria zen; denboralarik beltzena alegia. Ilundu eta gero zen, eta gure aita Zizurkildik zetorren, astoa aurrean zuela, dena blai-blai eginda, gizajoa.

Eta Konportako parean pasatzean, hango atetan antsia aditu zuen. Antzeman zion han gizona zegoena, eta hola esan zion:

— Zer egiten duzu hor?

Eta erdalduna izan, eta erdaraz erantzun zion: ez ziotela han lekurik ematen eta hantxe ito beharko zuela.

Gure aitak berari segitzeko esan zion, eta etxera jo zuen. Sartu eta guri horrela esan zigun:

— Ea gizon honi zer edo zer, alkandora lehor bat-edo emalozue.

Baina hark ezetz esan zuen, aldatzeko arropak berak ibiltzen zituela.

Gure errotak toki txikiak zeuzkan, geurontzako nekez, baina gure aitak errotara ekarri zuen.

Konportan, berriz, horrenbeste handiko etxea izan, eta bazuten bada hainbeste toki, baina ez zioten eman. Eta hango beheko atean eman ez ziotenean, mandioko atearan kontra jarri omen zen, eta han zegoen, euriak itotzen, gure aitak jaso zuenean.

Goiko ganbaran jarri zuen gaua pasatzen, mantarekin eta ahala zuen bezala.

Hurrengo goizean eskerrak ematen hasi zitzaion: halakoren beharra bazuela, bestela han hil beharko zuela,...

...

Bai. Gure aitak pobreentzako bazuen gogoa.

Ijitoek ere maite izaten zuten hura; ez dakit non ere kasu egin ziotela esaten zuen.

...

Hark, berriz, beti esaten zigun:

— Gizonari egiozue ondo! Beti gizonari ondo! Etorriko zaizue handik edo hemendik ondo eginarena, baina gaizki eginarena ere.

Bai, hark familia kristiandadean hazi zuen, eta kreditu txarrik ez zuen utzi.

Gure aita gizajoak ez zuen pobrea izatea besterik.

## II. ERANSKINA

(1. bideo-pasarte: 01.00.42)

Bihurrikeriak

### 1.- Xabier Agirre

Benoa, ba, kontatuko dizuet orain dela 20 bat urte edo, ba, Legorretako herria... Goierriko herri polit horretan gertatu zitzaigun gauza kurioso bat. Inuzente eguna zen eta bueno, lagun batzuk elkartu ginen eta pentsatu genuen, ba bueno, zerbait egitea, ez? Beti zerbait egiten genuen, urtero, eta orduan... Baina gauza berri bat bururatu zitzaigun: hau da, han plaza ondoan zegoen etxe bateko aldabari... ateko aldabari pita bat lotu eta beste aldera pasa eta handik pixkat etxekoei zirikatzea. Etxe hartan bizi ziren hiru pertsona edadetuak. Garai hartan, ba, 75 bat urte izango zituzten eta beheko partean... etxeko beheko partean zeukaten dendatxo bat. *Biona* izena zuen eta oso denda kuriooa zen. Orduan egin genuen: aldabari pita bat lotu, karreteraren beste aldera pasa, eta han arbustu batzuk zeuden. Orduan, arbusturen atzean ezkutatu eta halako batean, ba... gu hiru lau bat lagun izango ginen. Hala batean: tak, tak. Tira pitatik eta atea jotzen zuen, ez? Orduan andrea ateratzen zen atetik eta begiratzen zuen eta inor ez. Alde batera bestera begiratu eta inor ez. Itxi berriro eta halako batean gu berriro: tak, tak, tak. Berriro ateratzen zen, alde batera eta bestera begiratu eta inor ez. Eta pentsatzen zuen: bueno, baten bat, jada, adarra jotzen ari zait. Eta gero segidan bere ahizpa ere bai ateratzen zen, zeren bi ahizpa ziren edade berdintsukoak, eta gu berdin, ba, berriro barrura sartzen ziren momentuan: tak, tak, tak, berriro jotzen genuen. Eta, jada, ateratzen ziren eta pixka bat, jada, haserretuak edo bueno... adarra jotze nabarmena zela. Orduan egiten zuten barruan sartu, baina ate ondoan gelditu. Eta guk: tak, tak, tak, tak, jo; eta, ta! irekitzen zuten atea eta inor ez. Eta hau... zer pasatzen da hemen. Eta erabat harrituak. Orduan, jada, nola hain moskeatuak zeuden, ba, gelditzen ziren... kanpoan gelditu ziren. Eta zer gertatuko? Eta gu beste aldean, arbustuen atzean ezkutatuak, baina, klaro, pita ez zuten ikusten, *vamos, ni pa diez*. Eta halako batean pasatu ziren taberna batetik aterata beste bi tipo, eta hizketan bazihozten, eta halako batean, pita hemen, altura honetan: ui! zer da hau? Eta, ba... agureak atean kanpoan zeuden eta dena ikusi zuten, orduan guk korrika joan behar izan genuen, bestela hantxe harrapatuko ziguten eta... Baina bueno, oso dibertitua izan zen eta... eta bueno, oso gogokoa. Eta gero, handik bi edo hiru urtera saiatu ginen berriro errepikatzen, baina klaro, edadetuak izango ziren baina tuntunak ez. Eta orduan, jada, ez zeukan sentidurik.

### 2.- Agurtzane Intxaurre

Bueno, hemen kontatuko dodana da txikerretan pasa jatan gauza bat. E, nik amak esaten dostanagatik 3 urte neukazan eta egun batean tio Pedrok... bueno, guk txahalak eta behiak eta eduki duguz beti, ez? eta tio Pedro, ba, txahal bat eroan eban feriara eta... ba, hiru ahizpok, ba, bueno, ba ikusi genuenean eskolatik etorri ginenean ez zegoela txahalik negarrez hasi gintzezan, ez? Eta heldu zen, ba, tio Pedro feriatik eta zer ekarriko? eta txakur txikitxu bat ekarri euskun, arratoi txakur bat, *Alai* deitzen zen. Polita zen, honela, zuri eta kanela kolorekoa. Eta bueno, hiru ahizpok txakurragaz, bueno, zoratuta gengoan, ez? Eta antza denez arratsalde baten, eskolatik etorri eta gero, ba, bueno, ba ama hasi zen aber non gengoan, eta Deikunde eta Josune agertu ziren, eta ni, ba, ez nintzela agertuten. Eta amak kortan begiratu eban, ba, soloan, eta gure etxea dago zubi baten alboan, eta erreka pasetan da handik, eta beldurtu egin zen eta: "aber zubitik jausi den hau!". Eta azkenean ba, ama erdi negarrez, eta erabaki eban bateren bati deitzea laguntzeko. Bera bakarrik zegoen, aita ez zegoen, basoan zegoen beharrean. Eta zer egingo? Ba, gora joan zen kuarture. Guk baserrian... behean dago suetea eta goian dausku kuartuk. Eta nire kuarture joan zenean, bada, han..., antza denez, han agertu ginen txakurra eta biok. Txakurra, *Alai*, nire ahizpa txikiaren, Josunereren, kuman sartuta eta ni ama eta aitaren ohean sartuta. Eta egia esan ipurdiko galantak eman eustazan momentu hartan zeren bera hain nerbiosoa egon zen...! Hala eta guztiz ere, egun ere, sarritan esaten doste berak ezin duela imajinatu ere, hiru urte neuzkan orduan, zelan igo nuen txakurra besotan eskaileretatik gora... Oraindik ezin duela imajinatu. Horixe izan zen, apurtxo bat, egin genuen deabrukeria arratsalde hartan.

### 3.- Xabier Otaegi, Txirri (irratsaioa, irudiz hornitua)

- Esataria 1 Xabier Otaegi, berriz, donostiarra dugu eta oso oker ez bagaude behintzat, Alde Zaharrean jaioa. Ea egia den. Xabier Otaegi, arratsalde on!
- Xabier Arratsalde on! Hala naiz, hala naiz.
- Esataria 1 Hala zera, ezta? Alde Zaharrean jaiotakoa. Ez dakit, Alde Zaharreko parajeak al dituzu zuk, batez ere, buruan... gogoan?
- Xabier Bai... bueno, haiek bakarrik ez, baina bai, haurtzaroko nire irudimenak hangoak dira denak, noski.
- Esataria 2 Kapitalean eta kapitalaren kapitalean jaiotakoa, beraz, Alde Zaharrean, Donostian.
- Xabier Kapitalaren kapitala ez zegoen han, ez. Kapitalaren kapitala akaso, erdi aldean egongo zen. Gu, parte zaharrekook ba genuen herritar, herri txikiko edo barrioko grina bagenuen, akaso beste batzuk ez zutena. Ojo horrekin! Eta gero uda partez, noski, kaia. Kaian igeri egitea eta... Gu Kontxara... bueno Kontxara goizean joaten ginen, baina arratsaldeko partez kaian bainatzen ginen. Orduan orain baino garbiago zen, e!
- Esataria 2 Eta jendeak dirua bota eta hor murgildu eta dirua ateratzen ibilitakoa al zara?
- Xabier Plana askotan izaten zen. Bazkaldu bezain laister joaten ginen hara, *perrita al agua caballero* deitzen genion. Konturatu zarete nola gauza gehientsuak erdaraz esaten genituela?
- Esataria 1 Bai, bai, bai.
- Xabier *Perrita al agua, caballero* egiten genuen eta... zer esango dizuet, ba, mutil koxkor bakoitzeko lau-bost pezeta bildutakoan erosten genituen... sarri erosten genituen San Jeronimo kaleko txurrerian kakahueteak erosi eta gero Truebara joaten ginen, zinera.
- Esataria 1 *Perrita al agua, caballero*, ezta? Ze polita!
- Xabier Bai. Eta hori izaten zen... ez dakit, udako arratsalderako plan zoragarria izaten zen. Etxetik zentimo bakar bat atera gabe eta zentimorik gabe itzuliz, baina nola konpontzen ginen... Ez genuen arazorik ez lehertzeko, ez...
- Esataria 1 Ezertarako ez.

### III. ERANSKINA

(3. bideo-pasarte. Irratsaioa: 01.10.30)

#### Gaurko mitoak

- Txato Agirre Gizonak egunerokotasunari, ez dakit, ihes egiteko, alde batetik edo eragiteko behar dituela mitoak edo leiendak, eta, bueno... horrelako sinispenak, ezta? Hain zuzen ere, nik uste dut, gizakiarentzako nahiko beharrezkoak direla. Ez bakarrik iraganeko mitoak, edo historian zehar ezagutzen ditugun mitoak edo mitifikatu ditugunak, ezta? Gaur bertan ere bai. Gaur bertan ere neurri batean...
- Susana Idolo esaten zaio gaur egun, edo... asko gustatzen zaigun norbait.
- Txato Agirre Bedetak eta abar, ba, nolabait mitifikatu egiten dira. Gehienek aurpegi onena edo horien alderdirik onena ezagutzen da. Alderdirik itsusienak edo... ba ez dakit, deitoragarrienak ezkututzen dira edo ez dira hainbeste agertzen, orduan mitifikatu egiten dira.
- Susana Bueno, askotan ez dira ezkututzen zeren mitoak baditu bere ezaugarriak: gazterik hiltzen dira, bizimodu nahiko berezia izaten dute, asko bizitako bizia izaten dute, gorabehera handikoa. Hortxe daude James Dean, Marilyn Monroe, Elvis Presley... Horiek mito handiak dira, eta guztietan ezaugarri horiek behintzat betetzen dira. Gorabehera handiko bizia.
- Txato Agirre Greziarren artean garai batean bezala, badago melodramatismo pixka bat ere, ezta? Hola...
- Susana Baina hala erakargarri egiten gaituena, ze oso bizimodu... ez da oso eredugarria askorentzat.
- Iker Iruditzen zait pertsonai bereziak direla. Askotan irakurtzen duzuen... duzunean gero, ba ez dakit, holako pertsonaien biografiak, batzuetan biografiak izaten dira pertsonai obsesiboak. Oso... ez dakit, demasak dira gauza batzutan, beste gauza batzutan...
- Susana Muturretakoak...
- Iker Bai, hori da, ez? gauza batzutan...
- Susana Batera eta bestera jotzen dute.
- Iker Gauza batzutan izugarritzko kapazitatea dute zer edo zer egiteko eta beste eguneroko gauza askotan... harremanetan eta ez dakit zer dira ba, hori, ba, askotan benetan... benetan oso problematikoak, ez?
- Txato Agirre Baina orduan mitoa izateari uzten diote?
- Iker Hori da.
- Susana Segun, begira Elvis Presley, edo James Dean.
- Txato Agirre Bai, baina Elvis Presley seguru asko barkatzen zaio halako gauza batzuek, baina gainera hartzen duena edo beregan garrantzizkoa dena, edo berari nortasun berezia ematen diona, edo berarengan mitifikatzen dena da bere alderdi guztiz baikorra eta positiboa, ezta? Eta bestea oso itzalean gelditzen da, bueno, aipatzen da baina oso itzalean eta oso urruti gelditzen da. Baina guztiz arrunt bihurtuko bagenuke eta guztiz eguneroko gizaki

arrunt bat bezala jaisteraino ekarriko bagenu, ba, orduan bere mitoa galdu egingo luke, dudarik gabe.

- Susana Baina esate baterako Marilyn Monroe-ren kasuan saiatu dira. Biografia batzuk atera dira oso gogorak, bere alderik ezkutuen agerian utzi duten biografiak eta, hala ere, ez dute lortu, mito izaten jarraitzen du.
- Iker Nik hor, badago filosofo bat, Bacon berak filosofatzen zuen, bueno, gai bat... bere gai bat zen tribuaren idoloak, ez? Eta gutxi gorabehera hori, ba, tribuak mitoak behar ditu, eta era askotako mitoak. Ez bakarrik musikariak, azken finean dago progreso...
- Susana Zineko izarrak, idazle asko...
- Iker Edo... ez dakit, historia eta gizartea, ez dakit, autopista zuzen baten abiadan jarri eta hola doala eta horrelako gauza asko daude, musika... bai musikoak, ez dakit zer, artistak baina beste era bateko mitoak sozialak eta gauza horiek ere badaude, nik uste dut. Eta seguru asko gizakiarentzat beharrezkoak dira, ez?
- Txato Agirre Bai, gizarte guztietan gainera ematen dira mitoak. Nik uste dut historiako etapa gehienetan ere bai eta seguru asko zibilizazioa indarrak gehiena izan duen herrialdeetan mitoak ugariak edo nahiko lodiak izan dira.
- Unzurrunzaga Eske mito horrek batzutan oso... indar, indar... izugarritzko indarra dute.
- Susana Markos komandantea, esate baterako, bizirik dago baina mito bat izan daiteke, Beatles-ak dira mitoak, bizi diren arren.
- Txato Agirre Eta Che Guevara eta antzekoak...
- Susana Bai, bai, bai, baita ere.
- Iker Baita ere, ez?
- Susana Zergatik dira beti guapoak? Ezagutzen al duzue mito zatarrak? edo erakargarria ez den mitorik? Gu pentsatzen jarri gara, eta...
- Txato Agirre Nik ez dakit beti guapoak diren edo guapoak iruditzen diren baita ere, mitoak direlako. Ez dakit, e?
- Susana Bueno, mitoa baldin bada, ezta?
- Iker Ez dakit Che Guevara oso erakargarria zen, fisikoki baita ere iruditzen zait.
- Susana Bai, bai, bai. Bazuen xarma berezia, ez guapoa, baina...
- Txato Agirre Eraikuntzan, eraikuntzan ari zen edo aritu izandako langile bat izan bazen, seguru asko, ba, xarma horretan igual jende askok ez zuen, ez zuen... atentziorik ez zion emango, beharbada, hainbeste, ezta?



## IV. ERANSKINA

### Ziber-izarren inbasioa

Geroz eta handiagoa da Internet sareko pertsonaia birtual famatuen arteko lehiakortasuna; Attitude Studio enpresa frantsesak sorturiko Eve Solal dugu azken harribitxia

Hezur-haragizko pertsonaia famatu edota sasi-famatuen uholde amaigabe batean barneraturik gauden honetan, beste mota bateko pertsonaia famatuen inbasioa jasaten ari gara supituki eta ia oharkabean; famatuen arteko lehiakortasunak ez du amaierarik, itxura batean.

Sarean famatu izateko jaio den azken ziber-izarra Eve Solal frantsesa dugu. 22 urteko emakume gazte eta lirain horrek abestu, dantzatu eta antzeztu egin dezake. Bere familia ikaragarri maite du, eta halatsu miresten ditu Madonna eta Zinedine Zidane ere. Pertsona fidagarria da guztiz, eta sinetsirik dago nazioarteko artista gisara fama lortuko duela.

Frantziako Attitude Studio ordenagailu-konpainia izan da pertsonaia birtual honen sortzailea. Bertakoen esanetan, artista oso bezala sarean dagoen lehen ziber-izarra da Eve. Bere ziber-ahizpa batzuen aldean akatsak dituen emakumea dela azaldu dute haren sortzaileek, eta horrek eite freskoagoa ematen diola: "Eve Solal ez dugu *sex symbol* baten moduan sortu", adierazi berri dio BBCri Attitude enpresako manager Jacques-Olivier Bronerrek: "Eve Solalek arazoak ditu. Egunero pisua galdu ahal izateko borrokatzen da, taberna-zerbitzari gisa lan egiten du, sos batzuk irabazi ahal izateko, eta antzezle edota abeslari gisara aritzeko lan bila dabil. Hots, gure neska ez da hain perfektua".

### **Dantza egin dezan, mugimendua sortu nahian**

Behin pertsonaia sarean aurkeztuta (oraindik ez dago irudi askorik), orain mugimenduan adituak direnek dantza-sekuentzia bat atondu nahi diote. Eve jendez beteriko pub batean agertuko da dantza egiten.

Halaber, Everi bere mutil birtuala sortuko ote dioten zurrumurrua ere zabaldu da sare barruko orrialdetan barna. Alabaina, hori ziurtatzeko oraindik goiz dela eman du aditzera Bronerrek: "Ni soilik bere managerra naiz, bere bizitza pribatuari buruz ezer gutxi dakit".

Bitartean, Eve Solal musika-munduan leku bat lortzen saiatuko da, eta, horretarako, beste zenbait ziber-pertsonaiekin lehiatuko da. Glasgow Records disketxe independenteak sorturiko T-babe pop-izar birtualarekin, kasu. Disketxe horretako kide Tessa Hartmanen hitzetan, "T-Bade musika-industriaren arreta bereganatzeko sortu zuten hasiera batean. Piztu zuen jakin-mina benetakoa artistatzat jotzen den". Alderantzizkoa gertatu zaienak ere egon badaude. Pamela Anderson aktore estatubatuar famatua, esaterako, pertsonaia birtual bilakatu da, bideo-joko batean. Hor ez dira amaitzen, baina, Eve Solalen lehiakideak. Diki abeslari japoniar-korearra, Lara Croft superheroea, Ananova kazetaria eta Webbie Tookay modeloa dira bere aurrekarietako batzuk.

## V. ERANSKINA

(4. bideo-pasartea. ETB: 01.15.27)

### Bideo-jokoak

- Eguzkitze      Ba, nik ere bideo-joko bat erakutsi nahi dizuet, ezertan sartu baino lehen. Begira!
- Final Fantasy 8* du izena bideo-joko honek. Zer iruditu zaizue zuei? Ederra, gustagarria, entretenigarria, arriskutsua? Interesgarria gaia behintzat bada, eta gai honetaz hitz egiteko bi aditu ekarri ditugu gaur gurera: Felix Etxeberria eta Lurdes Otermin.
- Felix Etxeberria, Lurdes Otermin, gabon, eta ongi etorri!
- (biok)          Kaixo, gabon!
- Eguzkitze      Felix Etxeberria Euskal Herriko Unibertsitatean Pedagogia katedraduna da eta bideo-jokoei buruzko ikerketa bat eginga du. Lurdes Otermin, berriz, psikologoa da, eta batez ere haur eta gazteekin egiten du lana. Ikusi duzue zuek ere bideo-joko hori eta pentsatzen dut... bueno, pentsatzen dut... Ez, badakit ezagutzen dituzuela eta baduzuela horien berri. Murtziako 16 urteko gazte batek gurasoak eta arreba hil ditu. Hau azken egun hauetan gertatutakoa da. Hilketa, gainera, hilketa hori berehalaxe lotu dute bideo-joko batekin. Zergatik da hori? Zer da sentsazionalismo hutsa edo zerbait gehiago ere bada?
- Felix            Nik ez dakit oso seguru egongo nintzatekeen hori horrekin lotzeko, gauza batengatik: milaka eta milaka daude, holako jokoak... holako bideo-jokoak, *Final Fantasy* hori asko saltzen da, jostailu faboritoena da eta ez da egunero holakorik gertatzen. Orduan, nahi eta nahi ez horrekin lotzea larregi... gehiegi iruditzen zait.

## VI. ERANSKINA

(5. bideo-pasartea. ETB: 01.18.02)

### Bideo-jokoak

- Eguzkitze      Komunikabideren batean ikusi dugu ze konparazio egin duten hiltzailea dagoeneko ustezko hiltzailea esan dezadan oraindik ere... ustezko hiltzailea atxilotu dute, eta ustezko hiltzaile horren aurpegia sartzen zuten bideo-joko horretako protagonista nagusiaren irudiaren ondoan. Eta, bueno, ez dago ukatzerik ilea berdintsu moztuta, itxura beretsua zuten eta protagonista horrek erabiltzen duen ezpata handi horren tankerako batekin egin du ustezko hilketari hori ere. Alde horretatik, ba, bai, egia da. Baina benetan lotu al daiteke? Edo gerta al daitezke horrelakoak?
- Lurdes          Bueno, nik uste dut baietz. Ba, pixka bat kontuan eduki beharko genuke... bueno, lehen egon gara hitz egiten Felix eta ni, eta... ba, konponente ... nortasunaren konponente batzuk badaude hor. Baina, nik uste dut hor... galdetu beharko genuke zeintzuk engantxatzen diren horrelako jokoeekin, horrelako engantxe... engantxe esaterakoan esan nahi dut... bueno, jende bat badago, gazte jende bat badago orduak eta orduak pasatzen dituztela jolasten, eta jolasterakoan zer gertatzen da? Ba, jolasterakoan gertatzen dena da denbora guztian zaudela tik-tak jotzen. Orduan, ezin duzu pentsatu, akzioa da inportantena eta akzio horren inguruan zabilta, baina... eta imajina zure pentsamendua baino arinagoa doa eta ezin duzu pentsatu. Orduan, gelditzen zara horrela, pentsamendu...
- Eguzkitze      Erabat hor sartuta eta inguruko guztia baino gehiago axola zaizula.
- Lurdes          Eta, gainera, itsatsi egiten zara. Eta orduan, konfunditu egin zaitezke pertsonaje horrekin, eta orduan, bere ekintzak zuk egin ditzakezu. Baina hori izango litzateke, Felixek esan duen bezala, lehen hitz egiterakoan, nor... bueno, egoera pertsonal batzuk ere badaudela hor.
- Felix            Nik uste dut ez dela nahikoa bideo-jokoa. Gero hor beste zerbait egon behar du, nortasun arazoren bat... Ez da ohiz gertatzen. Eta gero, gurasoen giroa, etxeko giroak lagundu... edo gutxi laguntzen duela ere, seguru aski, zerbait ikusi beharko du. Baina bideo-jokoak, berez, bideo-jokoak soilik, nik ez dut uste holako, ba, erantzunik edo holako ondorio duenik.
- Eguzkitze      Bueno, nik egia esan, ez dut horrelako bideo-jokorik urrutitik ere ez ezagutzen, urrutitik ere ez, eta lehen Claudio beste zera horrekin jolasean orain hor dagoen horrekin jolasean hasi denean ere, ba, egia esan, ez dut batere ezagutzen. Baina, hainbeste erakartzeko... gazteak hainbeste erakartzeko zerbait izan behar dute. Hain erakargarriak al dira gazteentzat? Edo gazte-mota batzuentzat, bakarrik?
- Felix            Gazteentzat eta helduentzat ere bai.
- Eguzkitze      Helduentzat ere bai?
- Felix            Helduentzat ere bai. Nik uste dut hor arrazoi batzuk badaudela. Adibidez, gure gizartean balore batzuk ditugu, idolo batzuk ditugu, ezta? Ba, Rambo eta beste halakoak. Orduan, gizartean oso uztartuta, oso indartuta dauden baloreak dira. Eta bideo-jokoek lantzen dutena da, ba, holako balore motak, edo holako... sintonia bat lortzen dute. Orduan, badago harreman estu bat beraien artean.
- Eguzkitze      Baina bideo-jokoak komunikabideetara ekartzen diren bakoitzean alde txarrak aipatzen dira. Alde onak ere badituzte?

- Felix Nire ustez bai. Alde onak badituzte, eta praktikan bai psikoterapian, bai entrenamenduan, bai zenbat abildade lantzerakoan, bai simulazioan, bai klinikan, osasungintzan-eta, maila askotan erabiltzen dira bideoak, eta gero, bideoen artean, bideo-jokoen artean badaude bideo edukatiboak ere bai: inteligentzia lantzen dutenak eta sormena eta abar. Gero badaude batzuk, ba, negatiboak direnak, biolentzia, sexismoa-eta lantzen dutenak, eta, zoritxarrez, prentsan eta komunikabideetan azaltzen diren bakarrak horiek izaten dira normalean. Bideo-joko askotan sormena lantzen da, inteligentzia... pentsa, Tetris, adibidez. Tetris da joko bat non inteligentzia landu behar da enkajatzeko piezak eta abar. Eta gero, sormenerako bideo-joko asko dago baita ere.
- Eguzkitze Bost-sei ordu ere pasatzen omen dituzte gazteek.
- Felix Bueno, hor arazoa sortzen da edozer gauza bost-sei ordu egiten pasatzen badu: leetzen, edo piszina edo edozein lekutan, ba, bost-sei ordu, jada, kaltegarri bihurtzen da, jaten ere bai.
- Lurdes Bai, nik uste dut hor dagoela egoera... edo gauza bat kontuan eduki beharko genukeela: proportzioa. Zein inportantea den gauza guztietan proportzio bat gordetzea. Eta alor bakoitzari bere denbora bat ematea: jokoari, ikasteari, jateari... Nik uste dut hori oso inportantea dela. Eta arlo guzti horiek kontuan edukitzea.
- Eguzkitze Lehen esan diguzu, Felix, helduentzat ere oso erakargarriak izan daitezkeela. Eta asko al dira sare horretan harrapatzen... harrapatuta geratzen direnak?
- Felix Asko. Proportzio handi batean helduak ere hor daude. Gazteak eta gero heldu egiten direnean eta pertsona helduak, guk bezala ere, jokatzen dute.
- Eguzkitze Gero etxean ere arazoak sor daitezke, ez? Hi, seme, bukatu egin beharko duk, bada!
- Felix Bai: nire txanda da eta. Hori askotan, ba, futbolistak, adibidez, ba, kontzentratuta daudenean edo, zer egiten dute bere aisialdia, bere denbora librean? Lehen kartetan ibiltzen ziren, orain *play station* jokatzen dute. Ni orain dela gutxi, hotel batean nengoela, mesila gainean *play station* neukan, lau jokorekin eta bere instrukzio guztiekin. Hotel bat zen helduentzako... helduentzako zen hori, ez zen umeentzako, noski.
- Lurdes Bai, baina bueno, helduek ere badaukagu gure zati infantila, gure alderdi umetxo hori. Barruan daukagu, orduan, joko hauek igual horrekin konektatu dezakete, ez? Eta orduan ateratzen zaizkigu ume alderdi horiek jolasterakoan.
- Eguzkitze Eta zergatik ote dira mutilak protagonista biolentziaren kasurik gehienetan?
- Felix Komunikabideetan eta bideo-jokoetan gehienetan mutilak dira protagonistak. Heroiak mutilak dira, neskak...
- Eguzkitze Eta gero horiekin lotura izan dezaketen kasuetan agertzen diren hiltzaile, edo ustezko hiltzaileak ere ia beti mutilak dira.
- Felix Bai, bideo-jokotan erabiltzaileak ere %90 mutilak dira.
- Eguzkitze Portzentaje horretan?
- Felix Bai, bai, bai. Eta errebistak edo irakurtzen baditugu, ba, kartak, kontsultak, sariak eta lehiaketak-eta, beti mutilak dira: hamarretik bederatziz; heroiak edo protagonistak beti mutilak dira. Horregatik, seguru aski, neskei ez zaie hainbeste interesatzen halako jokorik. Neskak gainera, beti sexismoa lantzen duen alderdi negatiboa, neskak beti era pasiboan azaltzen dira, protagonistaren atzean, beti era sumiso batean, esklabak,

zigortuta, erreskatatu egin behar dira... Orduan, ematen duten imajina oso-oso negatiboa da, azkenean.

- Eguzkitze Bukatzeko, seguru hainbat eta hainbat guraso kezkatuta egongo direla azken egun hauetan komunikabideek zabaldu duten berri honegatik, edo batez ere, zenbait komunikabideek eman dioten enfokeagatik. Kezkatuta dauden horiei zer esan nahi diezue zuek, aditu eta... eta hezitzaile modura ere bai, zure kasuan
- Lurdes Bai, bai. Nik uste dut ezin zaiela umeei ukatu joko horiek, hor daudelako. Eta, gainera, eskatu egiten dituzte. Nik uste dut inportanteena dela neurri batzuk jartzea, muga batzuk. Eta horren arabera, ba, soportatu egin beharko dute eta agoantatu egin beharko dute beren jolasteko nahia hori. Baina, nik uste dut hor dagoela kakoa, proportzioan mugatzea denbora eta bueno... nik hori esango nuke.
- Eguzkitze Felix, bai, bukatzeko...
- Felix Nik neure aldetik 3 gauza esan nahiko nieke gurasoei: lehenengo, kontrolatzeko nolabait ere, ba, jokoak, aukeratzeko, selekzionatzeko, ez edozein joko erabiltzea, ezta? Askok daude gerrak eta biolentoak direnak. Gero, bigarren aldetik, kontrolatzeko denbora aldetik ere bai. Ordu erdi bat, ordubete bat nahiko baldin bada, nahiko. Ez bi, lau, sei, zortzi eta hamar. Eta gero ez ahaztea, ba, jokorik politena, ba, gurasoekin jolastea dela, anai-arrebekin, lagunekin eta abar. Eta ahal duten neurrian bideo-jokoa baztertzea.
- Eguzkitze Eta ipuinak kontatzea.
- Felix Eta ipuinak kontatzea.

## VII. ERANSKINA

### Gurasoak ere bideo-jokoetara hurbildu behar dira

10 bideo-joko aztertu ditugu, eta hainbat arlotako espezialistei iritzia eskatu diegu

Osasunarentzat kaltegarri dira?

Bideo-jokoek epilepsia jotzeko arriskua handitzen zutela zabaldu zenetik, fabrikatzaileek foiletoak eranstean dituzte bilgarrietan, eta, kezka horri buruzko oharrekin-eta, informazio interesgarria eskaintzen diote kontsumitzaileari. Hala ere, barruan informazio garrantzitsua datorrela besterik ez da adierazten azalean. Horrela, bada, informazioaren garrantzia kontuan izanda, gurasoek bideo-jokoa erosi aurretik eskuratu behar lukete informazioa. Bideo-jokoekin jolasean zenbait haur epilepsia joak izan badira ere, edozein argi keinukarik edo irudi argitsuk ere eragin lezake. Haur epileptikoa bideo-jokoekin jolasean ibili liteke, baina, horrelakoetan, onena da medikuari galdetzea

Jostailu seguruak dira?

1990/06/29 Errege Dekretuak, jostailuen segurtasun-arauei buruzkoak, kanpo uzten ditu bideoaren monitorera konekta daitezkeen eta 24 voltoko tentsio izendatuz elikatzen diren bideo-jokoak. CONSUMERek aztertutako euskarrietatik lau lege horretatik kanpo geratzen dira (Nintendo 64, PlayStation, Dreamcast eta ordenagailu pertsonalak), erabiltzeko ezinbesteko dutelako telebistako monitorea. Game Boy da segurtasun-neurriak betetzen dituena; beraz, arautu gabe daude gainerako guztiak. Horrenbestez, komeni da gurasoek joko horien erabilera gainbegiratzea

Menpekotasuna sortzen dute?

Jostailua erosi eta lehen asteetan haurra bideo-jokora "engantxatzen" da sarri, baina ondoren gero gutxiagotan erabiltzen du. Bestalde, normaltzat jotzen den arren astean hiru edo lau orduz bideo-kontsolarekin jolasean aritzea, garrantzitsuena da denbora hori beste jardura batzuekin orekatzea. Gurasoek kontrolatu egin behar dute seme-alabek bideo-kontsolarekin pasatzen duten denbora; batez ere, haurrek edo gaztetxoek isolatzeko joera izan eta harremanetarako arazoak badituzte, bideo-jokoa ihesbide erabili lezakete-eta. Jokoa bitartez tentsioak askatzea, taldeko harremanak sendotzea eta arrakastaren ondorioz nor bere burua gehiago estimatzea dira joko-mota honek menpekotasuna eragiteko arriskuaren arrazoi. Bestalde, erakargarri diren gaiak eta irudiak izaten dituzte eta entretenigarri eta atsegin gertatzen zaizkie hartzailerei.

Indarkeria bultzatzen dute?

Bideo-jokoetan espezializaturiko hainbat aldizkarik jokoek zenbat eta indarkeria handiagoa izan, orduan eta gehiago gorai patzen dituzte. Eta fabrikatzaileek bideo-jokoaren erabiltzaileen adinaz ematen duten informazioa ez da beti zuzena izaten. Seme-alabek erabiliko dituzten bideo-jokoaren edukia kontrolatu egin dute gurasoek, baina ulertzen jakinda eta inposaketarik gabe. Zenbait ikerketak frogatu duenez, badago erlazioa indarkeriazko bideo-jokoekin jolas egitearen eta jokaera oldarkorra eta horrekin lotutako arazoaren artean. Baina inork ezin izan dio erantzun galdera honi: bideo-jokoek indarkeria eragiten dute ala pertsona bortitzek izaten dute indarkeriazko edukiak dituzten bideo-jokoak erabiltzeko joera? Mezua bakarra da: kontrola itzazu edukiak.

Sexismoa bultzatzen dute?

Bideo-jokoetan gizonezkoak agertzen dira. Emakumeen rola pasiboa izan ohi da, eta biktima gisa eta bigarren mailako eginkizunetan agertu ohi da, Tomb Raider-eko Lara Croft pertsonaia izan ezik; emakume hori arkeologo ausarta da, botere handia erakusten duena, baina, azken batean, sex-simbol hutsa besterik ez da, jokalaria askorentzat oso erakargarria. Askotan, balore sexistak transmititzen dituzte.

Erotismoa erabiltzen dute?

Sexua ez da askotan agertzen kontsoletarako bideo-jokoetan; izan ere, bideo-jokoak egiten dituzten enpresa gehienek pornografia formato horietatik kanpo uzteko konpromisoa hartu zuten, familiek etxean horrelakoak izatea onartu eta seme-alabentzat erosiko bazituzten. Ordenagailurako jokoekin, berriz, ez da horrela gertatzen, euskarri hori pertsona helduek gehiago erabiltzen baitute.

#### Bideo-jokoak heziketarako tresna gisa

Erabiltzaileek jokoaren helburua berehalaxe ulertzen dute, eta horixe da bideo-jokoaren arrakastaren giltza; hain zuzen, haurrei eskolan sarritan gertatzen zaienaren alderantzizkoa. Horregatik, gakoa litzateke abantaila hori ikaskuntza-prozesurako erabiltzen jakitea. Izan ere, askotan, haurrek ez dute ulertzen eskolako ikasgaien helburua, baina, bideo-jokoan ari direnean, ongi ulertzen dute eginkizun garbia eta zehatza dagoela: ate bat irekitzea, norbait erreskatatzea, altxorra aurkitzea... eta horrek motibazio handia eragiten die. Gainera, bideo-jokoek berehala errepikatzeke eta, huts egin ondoren, berriro saiatzeko aukera eskaintzen dute, ondorio kaltegarririk gabeko giroan.

#### Fabrikatzaileek aipatutako adina dela eta

Bideo-jokoa seme edo alabarentzat egokia den ala ez kezkatu izaten dira gurasoak. Haurraren adinaren arabera, bideo-joko batzuk besteak baino egokiagoak izango dira (edukia, kontrabaliak, eragiten duen mendekotasun-maila... direla eta), eta, beraz, funtsezkoa da bideo-jokoaren bilgarrian joko bakoitza zein adin-tartetarako den adieraztea. Ulertezina den arren, Estatuan ez dago alderdi hori arautzen duen erakunderik. CONSUMERek aztertu dituen bideo-jokoek ez dute adierazten zein adinetarako diren, eta adierazten dutenek ere atzerriko hiru erakunderen hiru sailkapenetatik bat edo gehiago erabiltzen dute; The European Leisure Software Publishers Association ingelesa, Syndicat des Editeurs de Logiciels de Loisir frantsesa eta USK alemaniarrarena. Espainiako estatuan bideo-jokoak erabiltzaileen adinaren arabera sailkatuko dituen erakunderik ez dagoenez, arestian aipatutako erakunde horiez fidatu behar izaten dute gurasoek. Baina, zer gertatzen da horietako bakoitzak bideo-joko batentzat gomendio desberdinak egiten dituenean? Alemaniako USKren arabera, Dynamite Cop (Dreamcast-erako joko) 16 urtetik gorakoentzako da; erakunde ingelesak, berriz, 15 urtera jaisten du bideo-joko horrekin jolas egiteko gomendatzen den adina eta Frantziakoak ororentzako modukoa dela adierazten du. Zalantzak argitzeko, bideo-jokoak erosten dituzun dendan galdetu beharko duzu bideo-jokoaren edukiaz.

## VIII. ERANSKINA

### Aurrena Hilario! (1. zatia)

Eta iritxi huen karrera eguna, igande bat, eta denok oraintxe ikusten ari garen gailur honetara igo gintuan, oinez aldi hartan, zeren gurasoek, automobila asko izango zela eta, ez baitziguten bizikletarik hartzen utzi; eta etorri eta horko munto horretan eseri gintuan, ikusten duk?...

“Bai, bai, ikusten diat,” baieztatu zuen lagunak.

“Hortik dakarkigun bide honen puska bat ikusten baita, horregatik jarri ginduan hor.”

“Eta?...”

Bada halako batean, zurrumurru bat jendearen artean, bozina batzuk, txapligu baten eztanda zeruan, eta bazetozela karreristak. *Hiru alde eginda! Hiru alde eginda!* deitu zian norbaitek. Eta gu lepoak luze-luze jarri eta Hilario ikustera prestatu gintuan. Zeren, jakina, gauza segurutzat jotzen baikenuen bera aurreneko haien artean etorriko zela, ezta dudarik ere. Eta han non azaltzen diren errebueltak batean, hiru karreristak... kolorinetako zomorro txikiak ematen ziaten bidearen ertzeko zuhaitz batetik bestera pasatzerakoan. Eta gero eta hurbilago, ekin zitxioten gailurrean iranbazuak izateko sprintari. *Aurrena Hilario!* Deitu zian gutako batek. Baina nola *aurrena Hilario?* Non zegoen bada? Ba al zegoen ba hiru haien artean? Ez, ez zitxoan. Harrigarria bazen ere, hiru haiek beste nonbaitekoak hituen, ez Obabakoak.

*Ederki nekatuta pasa dituk! Ikusi al duzue nola pasa diren? Bati aparra eta guzti ateratzen zitzaiokean ahotik, hautsi zian batek taldean egin berria zen isilunea. Jota pasa dituk, bai. Segituan harrapatuko dizkik tropelak, lagundu zitxion beste batek. Azkenerako utziko zian Hilariok atakea. Eta ia hobe. Berak daukan sprint horrekin!... borobildu zian hirugarrenak.*



## IX. ERANSKINA

### Aurrena Hilario! (2. zatia)

“Eta tropela heldu eta Hilariorik ez, “asmatu zuen lagunak. Eta hitz gehiagorik gabe, haranaren beheko aldeko argiak seinalatu zizkidan: hura izango zela Obaba, noski.

Baietz egin nion buruarekin, eta oroitzapenaren kontaktarekin segitu nuen.

“Guk ez genian ikusi behintzat. Ikusi genizkian propagandako auto mordo bat eta larru beltzez jantzitako motoristak, ikusi genizkian hirurogei bat karrerista: elastiku berdekoak, bixera gorrikoak, izter lodikoak, izter finekoak, beltzaranak, beltzaranak ez zirenak; ikusi genizkian han gertatutako den denak, baina gure erkidearen arrastorik ere ez genian sumatu. Eta tropela gure aurretik Ziz Ziz eginez pasa eta aldapa beheara abiatu zenean, denok izututa gelditu gintuan, zer pentsatu ez genekiela. *Baina, zer da hau, ordea!* Atera huen bat erdi haserretuta. Zeren, Hilarioren hutsa baino gehiago, zeruak guri egin nahi izandako burla baitzirudien.”

“Eta hala, umil samar, aldapa beheara abiatu gintuan etxerantz. *Behin pasako Obabatik, eta erori egin behar orduan*, esan zian pixka bat haserretuta zegoen hark. *Erori egin al da bada?* Galdetu genitxoan bestee. *Horixe! Zer bada? Ez al duzue ikusi erretiratu egin dela!* argudiatu zigukean. *Bada min handia hartuko zian Hilario den gogorrarekin!...*

Bapatean, denok kezkatuta geundekian gure *kaballeruak*, *Obabako loriak*, hartua bide zuen minarekin. Eta hartan, lehentxeago pasa dugun errebueltan zabal hartan geundela, bozina batzuk entzun genizkian, benetako tutuak. Atzera begiratu eta... zer ikusiko? Bada kamioi zahar bat muturrean eskoba handi bat zeramana, eta haren aurrean...”

“ Hilario!” erabaki zuen lagunak.

“ Hilario bere kulote beltzean, Hilario bere kolorinetako elastikuarekin! Zulo bat egin zitzaigukean barruan, tripan, edo bularrean, edo bihotzean. *Azkena zatorrek eta!* Atera huen bat erdi purrustika, eta eguzkia, gure desengainuarekiko errespetoz edo, laino baten atzean ezkutatu huen.”

“Ez zekiat zenbat denbora pasa genuen hala, begi zabalik eta geure barruko zuloarekin. Niri behinik behin eternala egin zitzaidakean unea. Eta azkenean, kamioia zein karrerista parez pare jarri zitzaizkigunean, oihu larri eta pitzatu bat sortu huen guztion eztarritik: *Emaioz Hilario!...*”

**“Eta oihu harekin bukatu huen igande hartako karrera, eta baita gure haurtzaroa ere.”**